

GUaiXe.eus



Azken ihoteak Bakaikun eta Olatzagutian



Sakanerria >> 6

Etxarri Aranazko musikariek bertsioen kontzertua eskainiko dute gaur Agertokiye programa despeditzeko



Kultura >> 15



Plan estrategikoa Lanbide Heziketarako

>>> 3

Hondakindegiak Mank-en aurrekontua atzeratu du

>>> 9

Correscales, prekarietatearen kontra korrikan

Gaur, 18:30ean, Irurtzundik pasako da

>>> 5

Gurasoak gazteen drogen kontsumoaren prebentzioan trebatzen

>>> 9

Irañetako eta Altsasuko Udalek aurrekontua onartu dute >>> 7

Ipar eskian aritzeko gonbitea egin du Mank-ek >>> 13

Monika Etxebarriak Modianoren «Dora Bruder» itzuli du >>> 14



Julen Martijak, Etxeberriko pilotariak, profesionaletan debutatuko du

>>> 11



Etxebizitza eraikuntza



948 564275
publi@guaiXe.eus
publizitatea@guaiXe.eus



BIHAR KRISIAREN AURKAKO FESTA

KUBATAK: 3,5 €
TXUPITOAK: 1€

ETXARRI ARANATZ

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Maialen Aldasoro Goikoetxea
ZORIONAK potxola, zure 18. urtebetzean. Etxekoen partez. Muxus.



Gorka
Asteartean lehen urtea beteko duzu, Gorka. Ehun bider bete eta mila bider zorion izan diitazun opa dizugu. Etxekoen partez.



ZORIONAK IZAI!!!
Astehenean 7 urte beteko dituzu, egun polita pasatzea espero dugu. Muxu handi handi bat Ekhi, aita eta aman partez.

ilbeltzak

19-25

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Etxarriko musikarien kontzertua. Otsailaren 19an, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Musika eta dantza emanaldia. Otsailaren 22an, asteartean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko musika eskola.**

Antzerkia

Don Juan, memoria amarga de mi. Otsailaren 20an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Companyia Pelmānec.**

Akëshia. Otsailaren 21ean, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **El cau de l'unicorn.**

Zinema

Phoenix. Otsailaren 19an, ostiralean, 21:45ean eta otsailaren 21ean, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Los odiosos ocho. Otsailaren 19an, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 21ean, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

El renacido. Otsailaren 25ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Imozko itzulia. Otsailaren 21ean, igandean, Irurtzundik. **Iratxo mendi taldea.**

Bizikleta irteerak

Gaztelugatxe. Otsailaren 21ean, domekan, 7:30ean Altsasun antolatzaileen bajeatetik. 35 km. **Barranka txirringulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Kamarroak, XX. urteurrena. Otsailaren 19an, ostiralean, Bakaikuko elkartearen. **Inauteri batzordea.**

Zero grabitatea. Martxoaren 17ra arte, astegunetik 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara



Akëshia, otsailaren 21ean, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Altsasuko Iortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Ez dira pasako. Interunit brigada Prizrak. Otsailaren 19an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko gaztetxean.

Literatura

¿Quién con fuego? Otsailaren 25ean, ostegunean, 18:30ean Ziordiko liburutegian. **Carlos Olló Razkin idazlearekin solasaldia.**

Tailerrak

Kosmetika naturala. Otsailaren 20an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Correscales, korrika prekariora. Otsailaren 19an, ostiralean, 18:10ean Irurtzundik pasako da.

Instagram argazki lehiaketa. Otsailaren

19an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 19an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 21ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Bakaikuko inauteriak
- Monika Etxebarria itzultzailea
- Julen Martija pilotaria

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

SAKANA

Horretan ari dira Sakana Lanbide Heziketa institutuan, 2016-2020 plan estrategikoa egiten

Aurreko ikasturtea bukatzearekin batera, Sakana Lanbide Heziketa institutuaren plan estrategikoaren indarraldia bukatu zen. Orduz geroztik ikastetxeko komunitatea hurrengo lau urteetako lan ildoak zehaztuko dituen plan estrategiko bat zehazten ari da. Plan estrategikoa apirilera despeditua izan nahiko lukete. Plana heldu den ikasturte hasieran indarrean sartzea nahi dute eta 2016ko irailetik 2020ko irailera arteko indarraldia izanen du.

Ignacio Urbitarte Cabrera zuzendariak azaldu digunez, aurreko atxerri barruan egositzen eta oraingo parte hartzearen bidez ontzen ari dira. “Gure misioa da, inguruan ditugun eskaerei erantzunez, ikastetxean dauden pertsonak profesional arloan trebatzea eta haien lan merkaturako sartzea erraztea”. Urbitartek gaineratu duenez, “Lanbide Heziketa ikastetxea garen heinean eskualdearekin harremana izan behar dugu. Horregatik, guk egiten ditugunak beste batzuei eragiten diete. Interes talde horiengandik informazioa jaso nahi dugu. Bakoiak zer behar edo aukera ikusten dituen azaltzea nahi dugu”. Ikuspuntu ezberdin horiekin helburu egingarriak zehaztu nahi dituzte, lau urteetan aurrera egin ahal izateko.

Planak Sakanako Plan Estrategikoarekin lotura zuzena izanen du. Urbitartek gogorarazi duenez, “han jasoa dago Lanbide Heziketa institutua informazio erreferentea izan behar duela. Hori lortzeko plan estrategikoan zein bide edo zein ekintza egin behar ditugun zehaztu nahi dugu”.

Interes taldeak

Ikasleen jatorrizko ikastetxeak, eskualdeko enpresak, erakundeak, ikasle ohiak –prestakuntza jarraitua eman diezaikegu– eta ikastetxea (irakasleak, ikasleak eta



Ikasleak Altsasuko Lanbide Heziketako institutura sartzen.

Lau urteetarako lan ildoak zehazten

zerbitzuetako langileak) zerrendatu dizkigu zuzendariak. “Guztiek lan bilerak egin nahi ditugu eta AMIA analisiak egin, hau da, ikastetxearen aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak zehaztea”.

Ikastetxeak eginak dituzte dagoeneko. Otsailaren 2an erakundeetako ordezkariak bilera egin zuten institutuan bertan. Sakanako Garapen Agentzia, Cederna-Garalur, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Hezkuntza Departamentua, Altsasuko Udala eta enpresarien ordezkariak izan ziren bilera hartan AMIA osatzen. DBH duten ibarrek ikastetxeekin eta ikasle ohiarekin biltzea falta zaie. Azken horiekin zailagoa suertatzen zaie. “Batzuekin harremanetan jarri gara, baina lanean daude, modua eta data opatu behar da”. Bestalde, plana modu parte-hartzailean egiteak ikastetxez aparte eragileekin harremana mantentzen eta estutzen laguntzen die.

Planaren zergatiak galdetuta, Urbitartek azaldu digunez, plan estrategikoaren premia institutuan bertan sortu zen. “Kalitate sare batean gaude. Azken auditoria pasa dugu eta aurki bikaintasunaren aitortza emanen digute. Ikastetxeak misio bat eta balio batzuk dituen moduan, gure kalitate sisteman barruan plan estrategiko baten beharra jasoa dugu”. Kalitatearen kudeaketaren kultura barneratua dute. Horregatik, aurretik plan estrategiko bat egin zuten.

Hezkuntza Departamentuak planaren sorreran laguntzen duen galdetuta, Urbitartek baietza dio: “ikastetxeei ematen dien autonomia horren barruan plan estrategikoa egin dezakezu. Baina gaur asko departamentuarekin lerrokatuta doaz. Ildo estrategiko batzuk indarrean jartzeko departamentuaren laguntza ezinbestekoa da”. Trebakuntza ildo berriak daude Sakana LH institutuan eta

horiek Hezkuntza Departamentuagatik jarri direla azaldu du zuzendariak.

Lehen planaren balorazioa

Aurreko ikasturtean egin zen. “Dozena bat helburu zehaztu bagenituen zazpi bat lortu genituen. Gainontzekoak gure eskumene-tatik kanpo zeuden eta ez genituen lortu”. Gauzatze mailarekin pozik daude institutuan. Ikasle kopuruan haztea, ikasketa eskaintza zabaltzea... dira lortutako helburuetako batzuk. Bide horretan segitu nahi dute plan estrategiko berriarekin, “hori eskatzen digutela”.

Euskara

Euskal Herrian Lanbide Heziketak gabezia bat badu hori euskaraz ikasteko aukera da. Sakanako ikastetxea ez da salbuespena. Urbitartek argitu digunez, “Nafarroan LHko euskarazko ikasketak oso puntualak dira. Euskarazko eskaintza eskaeraren arabera izan behar dela esaten digute. Euskarazko LHrik hutsez ez dago, gaztelan parekorik ez badago. Ez dago gure esku erabakitzerik”. Institutuan argi dute Sakanako DBHko ikasleen %75 inguruk ikasketak euskaraz egiten dituela. Eskaera horri erantzuna eman beharra dagoela ikusten dute. Ez dakite nola. Bitartean ikastetxean aritzen diren irakasle asko euskaldunak direnez, hala eskatzen duten ikasleekin harremana euskaraz izaten dute.

Eskaintza

Merkataritza Zerbitzuetako Oinarritako Lanbide Heziketa (OLH). OHLkoak bi ikasturteko ikasketak dira. Ikasturte honetako eskaintza berria da eta dozena bat ikasle daude. “Denda edo industria biltzietarako irteera eskain dezake eta eskualderako baliagarria dela uste dugu”. Zuzendariak zehaztu duenez, “DBHko titulua ez dutenendako LOMCE legeak sortu ditu ikasketak dira”. Gradu ertaineko ikasketetan **soladadura eta galdaragintza eta**

mantenu elektromekaniko ikasketak egin daitezke Sakana LH institutuan. Goi graduari dago-kionez, **industria-mekatronika** (lehengo industria mantenua) eta **mendi ertaineko erregimen bereziko kirol ikasketetako lehen eta bigarren nibelak**. Aurreko ikasturtean aurrekoak aurrekoak atera zen institututik. “Azken ikasketa horrek harre-ra ona du eta eskaera handia dago”. **Profesionaltasun ziurtagiriak** lortzeko ikasketak ere eskaintzen dira institutuan. “Nafarroako

Enplegu Zerbitzuekin elkarlanean **xirbil-harroketak bidezko mekanizazioa** eskaini izan dugu. Orain arte urtero prestakuntza modulu bat eskaintzen ari ginen, ibilbidea osatu arte. Martxo erdialdetik aurrera aurrekoari **industria arloko mantenu eta muntaia** profesionaltasun ziurtagiria lortzeko ikasketak gehituko zaizkio. “Osorik eskainiko ditugu”. Langabetuendako ikasketak dira azken horiek, baina langileak edo ikasle ohiak sartzeko aukera izan dezakete. Guztira 126 ikasle ari dira institutuan.

Non erabili

IÑAKI OINETAKOAK

ETXARRI ARANATZ
50€ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

GERTU SAKANA

ALTSASU
Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

AINHOA ESTETIKA

IRURTZUN
Utsusuky packetan, %30eko deskontua.

ASENSIO

ALTSASU
100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (Eskaintza ez metagarria).

IL PADRINO

ALTSASU
Eguneko menuan txupitua doan.

VALCARCE

OLAZTI
0'06 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

EDERNE

ILEPAINDEGIA

LAKUNTZA
30 €ko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Ilepaindegiko zerbitzuekin, maki-laje ukitua doan.

GUAIXE

KOMUNIKAZIOA

%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan.

XAGU

ALTSASU
%5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275



Zoila Berastegi

Ukitua

astekoa

hara zer dien

Gorputzak eutsi egiten gaitu denboraz; ez luzez. 80 urtez batzuei, 64, 56, 33, 12, 9 edo 2 urtez beste batzuei. Honela gorputzen da bizitzia; hezur, azal eta organoetan. Bihotz taupada frenetiko batzuek ematen diote hasiera, eta taupada bakar batek amaiera. Eta azalaren azalera horrek mugatuko du Ni bat. Mugatu, babestu edo kondenuatu. Eta hiru hitzak sinonimo ez ote diren gal-

detzen diot nire buruari.

Ni horrek izen bat izango du; guraso batzuk izango ditu; begirada galarazten duten ametsak; hezurdurak besarkatzera bultzatzen duten beldurrak; burua kolpatzen dioten pentsamendua izango ditu Ni-ak; begiak malkoz bustitzen dizkieten sentimendua... Eta azken hatsarekin gutzia ezereza izango da. Hautsa. Hutsa.

Baina egongo da Ni-ak sekula ulertuko ez duen min bat; non-bait itsasia; ahanzturak ere ezabatuz ezin izan duena; denboraren orratzei ihes egiten diona; Ni-bera baino askoz ere handiagoa dena, zaharragoa; lurperatuta ere isilarazi ezin izango dena; gorputzak utzi eta gorputzetan gauzatu dena; iragana orain egiten duena.

Nik badut min hori. Ez naiz erori,

ez naiz lagun batekin haserretu, ez nau mutilagunak utzi, ez dut istripu bat izan, ez nago gaitxo, ez da nire amona hil... eta hala ere, nik badut min hori. Ez dakit nondik datorren, non hasi zen ez eta norena zen. Baina orain ni ere banaiz min hori. Eta animalia zaurituak egiten duen bezala mihizkatu nahi dut min hau, etorririko direnak kondenuatuak etor ez daitezen.

barrutik kanpora

Crowdfunding

Azkenaldi honetan proiektu pertsonal eta profesionalak garatzeko finantziario eredu bat modan jarri da. Euskaldun gehienentzat ez zegoen eredu bat, hamaikadak daramatzagun finantziario eredu honekin lanean. Ez agian Interneten bidez, bai aldiz, era presentzial eta pertsonalean.

“Crowdfunding” terminoarekin ezagutzen den finantziario eredu hau, Interneten bidez, proiektuak kolektiboki finantziazteko datza. Pertsona batek 10.000 € jarri ditzake edota 100 pertsonak 100 € jarri. Dirua jartzen duten pertsonak beti itzulerako edo “retorno” bat eduki behar dute.

Eta nola funtzionatzen du? Azken batean, jendeak dituen ideiak proiektu batean definitu, gizarteratu eta martxan jartzeko bitarteko ekonomikoak biltzeko tresna da crowdfundinga. Horretarako, ekintzaren bultzatzaileak behar duen finantziario kopurua definitu beharko du eta diru hori lortzeko epe jakin bat izango du, plataformak zehaztuko duena. Epe hori igaro ostean, bi egoeratan aurki daiteke proiektua: alde batetik, aurretik zehaztu duen diru kopurua lortu eta, beraz, bildutako diru guztia jasoko du (kontutan eduki behar da, plataformaren gastuak kendu behar zaizkio-)

zehaztutako diru kopurua %100ean batzea ez du lortu eta, ondorioz, proiektuak ez du dirurik jasoko.

Crowdfundinga zer den eta zer ez den zehazteko kontuz ibili behar gara. Finantziario eredu hau ez da ez kreditu mota ezta mailegurik ere. Ez da dirua eskatzea. Ez da pertsona altruistetan oinarritzen. Eta ez da diru erraza.

Gaur egun, 5 Crowdfunding mota aurkitu ditzakegu. Hauek, itzulera edo retorno motaren arabera banatuta daude:

- Oparia: dirua jartzean opari bat ematen dizute. Estatu Batuetan liderra Kickstarter da. Eta Espainian, Goteo, Lanzanos eta Karena.

- Mailegua: dirua mailegu moduan eskaintzen duzu. Kasu honetan, LendingClub, Arboribus edota Kiva ditugu.

- Dohaintza: dirua dohain ematen duzu. Bi plataformak: migranodearena.org eta crowdrise.

- Dohaintza oparien bidez: dirua dohain ematen duzu eta opari bat jasoko zenuke. Omaze eta Prizeo.

- Inbertsioa: dirua inbertsio moduan jartzen duzu eta enpresaren % bat jasoko zenuke. La Bolsa Social, Crowdcube eta Startxpire.

Laster arte!

Sakantzen Sarea

gutunak

Atal honetan ahalik eta irizki gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunetan izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Tentsio handiko linea eta Sakanako enpresarien eskaerak

Arantza Ibarra Lizarazu, Sakanako Tentsio handiko linearen Kontrako Plataforma

Nafarroako kontseilaria, Manu Aierdi, Sakanako eragileekin bildu da. Enpresariak argi jarri dituzte euren beharrak, lau eskaera egin dizkiote: lanbide heziketa hobetzea, azpiegitura, internet eta elektrizitatea. Azken horrek hautsak harrotu

ditu, Sakanako herritarren artean. Antza denez, elektrizitate beharra dute. Diote, ez dela behar besteko energia iristen. 200.000 w. potentzia duten lineak Sakana zeharkatzen du eta horrek nahikoa indar du. Kontua da, egungo sarearen egoera txarra dela. Ados gaude egungo sarearen hobetu behar dela, duen potentzialtasuna ondo aprobetxatzeko eta bilerak dituen beharrak asetzeko. Gabezi hau aprobetxatuz, batzuk tentsioaren beharra justifikatzeko.

Gauzak argi uzte aldera, tentsio altuko lineak ez du energiari uzten bileran. Utzi ez eta kendu egiten digu: Gipuzkoa eta Nafarroa artean egin asmo den 127 km. autobide elektrikoa da, 85 dorre ditu, Sakana zeharkatu baino ez luke egingen. Elektrizitatea garraiatu baino ez luke egingen. Zonaldean energiari utzi gabe. Eraginak: espezie babestuei eraginen lieke eta milaka zuhaitz moztu beharko lirake. Gurutzatuko lituzkeen herrien etorkizuna kolokan jarriko luke, turismoa eta ekoiz-

pen ehuna bete-betean hondatuko lituzke. Osasun eraginak ere izan litezke, oraindik balizkoa den ibilbide horretatik zenbait udalerrit autobide elektrikitik 500 m. baino gutxiagora geratu koliratekeelako. Plataformatik lehen eskaera bat: jar itzazue gauzak argi, azal itzazue egitasmoa behar bezala herritarrei. Alarma eta zarata sortu aurretik, eraman nahi diren proiektu berri jartzea oinarrituko da. Bien bitartean, plataforman ari gara informazioa zabaltzen.

Olatz Berastegi

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxebarria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Miren Alonso

ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus

ADMINISTRATIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salburuzordeta

>> Irurtzun / Arakil

Correscales, prekarietatearen kontrako lekukoa partekatzen

Herenegun Bilbon hasi eta astelehenean Bartzelonan bukatuko da korrika prekarioa. Bi hiriak lotuko dituzte justizia eta duintasunaren alde borrokatzen dutenen bizipenen arteko konplizitateak saretz. Irurtzundik gaur, 18:10ean, pasako da

Joan den urtean Telefonica-Movistarren lan egiten zuten langileek 75 eguneko greba egin zuten. Prekarietatearen eta injustuak diren bizi baldintzen kontra; oparotasunaren izenean bakar batzuk baliabideak pilatzearen kontra egin zuten greba. Orduan jasotako babes eta indarra eskertu nahi dute tek-

nikariek eta makina baterakundearen laguntzarekin, Correscales ekimena aurkeztu dute, marea urdin bat izan nahi duena.

Bilbo eta Bartzelona arteko 800 km-ko lasterketa, 80 lekuko aldaketa bost egunetan. Horrekin batera, 80 egunetako crowdfundinga, gutxienez 94.250 euro lortu nahi dituena. Diru hori erresistentzia kutxa baterako bideratuko da, "azpikontraten kateetan daudenak eta lan prekarietate handia dutenek arrazoi ekonomikoengatik haien eskubideen alde greba

egiteari utz ez diezaioten". Horregatik, lan prekarietatea sentitzen duten langileek ekimenarekin bat egin eta "burua altxatzeko" eskatu dute. "Borrokarako aukera bat eman nahi diegu".

Correscales ekimenak ere kolektibo, mugimendu, erakunde eta pertsonen arteko konplizitateak lortzeko erabili nahi dute. Aldi berean, aldarrikapen eta salaketa lasterketarekin bat egiteko deia egin dute. Hainbat arlokako borrokek elkar laguntzea nahi luketela adierazi dute antolatzaileek.



Prekarietatearen aurrean duintasuna aldarrikatuko dute. WWW.URIOLA.EUS

Teknikariek salatu dute CCO-Ok eta UGTk Telefonicaren kontratekin lortutako akordioak ez direla onuragarriak izan, 60 kaleratze egon direla eta greban izan

zirenekin zerrenda beltzak osatu dituztela. Batzarretan antolatuta, elkarri laguntzen, telefoniako teknikariek urteetan inposatutako banaketa gainditu zuten.

SAKANA

Ilbeltzean 40 langabe gehiago

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lan bila dauden 40 sakandar gehiago zenbatu zituen ilbeltzean. Guztira 1.292 langabe zeuden. Hamar langabetik sei (%59,29) emakumezkoak dira, guztira 766 (aurreko hilean baino 65 gehiago). Gizonezko langabetuak %40,71 dira (526, 25 gutxiago). Adinari dagokionez, langabeen erdiak (%49,77) 45 urte edo gehiago ditu (643, 11 gehiago). Hurrengo adin multzoa 25 eta 44 urte artekoa da, %40,33 (521, 17 gehiago). Azkenik, 25 urtez azpiko langabeak %9,91 dira (128, 12 gehiago). Sakanako langabezia Nafarroakoaren %2,86 da (populazioan %3,17 gara).

Sektoreak

Sakanako hamar langabetik seik, %61,07, zerbitzuen arloan lan egin nahiko luke (789, aurreko hilean baino 39 eskaera gehiago). Industriadako lan eskaerak %23,76 dira (307, 6 gutxiago). Eraikuntzan egi-

nen luketenak %6,35 dira (82, 1 gehiago). Lehen sektorea aukeratu dutenak %2,4 dira (31, 3 gehiago). Azkenik, aurretik enplegurik izan ez dutenak %6,42 dira (83, 3 gehiago).

Kontratuak

Ilbeltzean abenduan baino 20 kontratu gutxiago sinatu zuten sakandarrek, 599 guztira. Haietatik 310ek gizonezkoen sinadura zuten (%51,75, aurreko hilean baino 26 gutxiago). Emakumezkoek egindako kontratuak 289 izan ziren (%48,25, 6 gehiago). Sinatutako kontratuetatik 552 hasieratik aldi baterako ziren (%92,15, 38 gutxiago). Ilbeltzean kontratu mugagabea 27 sakandarreri egin zieten (%4,51, 13 gehiago). Eta beste 20 langileren kontratuak mugagabe bihurtu ziren (%3,34, 5 gehiago).

Kontratuen erdiak, %50,58, zerbitzuen arloan sinatu ziren (303, 3

gehiago). Kontratazio gehien egin zuen bigarren sektorea industria izan zen, %46,08 (276, 32 gutxiago). Eraikuntzarako 19 kontratu egin ziren (%3,17, 10 gehiago). Eta, azkenik, lehen sektorean aritzeko kontratu bakar sinatu zen Sakanan ilbeltzean (%0,17, 1 gutxiago). Ilbeltzean Nafarroan 27.405 sinatu ziren, haietatik sakandarren sinadura %2,19k du.

7.878 kontratu

Horiek dira sakandarrek joan den urtean sinatu zituzten kontratu kopurua. Haietatik %52,84 gizonezkoek sinatu zituzten (4.163) eta %47,16 emakumezkoek. Kontratu ia gehienak, %94,47, aldi baterakoak izan ziren (7.442). Mugagabehurtu zirenak %2,89 izan ziren (228). Eta hasieratik mugagabeak izan zirenak %2,64 (208).



Gasa sartzeko lanean. ARTXIBOA

Joan den urtean sakandarrek sinatutako kontratuak %52,46 (4.133) zerbitzuen arloan lan egiteko izan ziren. Kontratuak %44,53 (3.508) industriarako izan ziren. Eraikuntza arlorako %2,6 (205) izan ziren. Azkenik, soilik kontratuak %0,41 (32) lehen sektorean aritzeko izan ziren. Nafarroan joan den urtean 338.998 kontratu sinatu ziren, sakandarrenak haien %2,32 izan ziren.

Langabezia herrika

Udalerrriak	Guztira	%	Aldea
Altsasu	631	48,84	12
Arakil	48	3,72	8
Arbizu	54	4,18	0
Arruazu	5	0,39	0
Bakaiku	14	1,08	1
Ergoiena	11	0,85	0
Etxarri Aranatz	131	10,14	8
Irañeta	6	0,46	-1
Irurtzun	151	11,69	2
Iturmendi	21	1,63	2
Lakuntza	46	3,56	-2
Olatzagutia	103	7,97	7
Uhartea Arakil	38	2,94	1
Urdiain	22	1,70	0
Ziordia	11	0,85	2
Sakana	1.292	100	40

Aldatzea jarrera bat da.
Irabaztea gogobetetzea.



Hyundai Tucson Berria.
Espainian 2016ko kotxerik onena.

Aldaketaren apustua egin eta irabazi dugu. Sari handi bat lortu dugu: Espainian 2016ko kotxerik onena izatea. Kotxe handi bati saria baina batez ere jarrera bati. Mila esker Hyundai Tucson kotxean apostu ezberdin bat ikusi duzuenoi.

Aldaketaren poterea nabaritu www.hyundai.es-en

 NEW THINKING.
HYUNDAI NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Gama Hyundai Tucson: Isuriak CO₂ (gr/km):
119-175. Kontsumo mixtoa (l/100km): 4,6-7,5.

>> Arbizu

Zuhaitzaren eguna, bueltan

San Juan ermitaren inguruan 20 zuhaitz landatu zituzten igandean

Badira urte batzuk Arbizun Zuhaitzaren eguna ospatzen ez zela. Ingurumen Batzordeak hura berreskuratzea egoki jo zuen. Baina aldaketa batekin: aurreko urtean herrian jaiotako haur bakoitzeko zuhaitz bat landatzea. Haien gurasoei igande eguerdirako gonbidapena egin zieten. Eguraldi txarra izanik ere, baita denak erantzun.

Igande eguerdian Arbizuko plazan elkartu ziren eta handik San Juan ermitara abiatu ziren. Hamarna lizar eta urki sartu zituzten (bi gehiago). Horrekin batera, batzordekideek haur bakoitzari ezkur bana eman zioten. Hura zaindu eta aurrerago haritz landarea basoan landatzea litzateke asmoa. Argazki saioaren ondoren guztiek Aldabide elkartean gosalduta zuten.

Ingurumen Batzordearen



Zuhaitzak landatzen.

asmoa da Zuhaitzaren egunari urtero segida ematea. San Juan ermitaren inguruko larreetan egitea aurreikusten dute: "tokia oso polita da, ikusmira ederra dago". Batzordean aurrera eramateko ideia gehiago dituzte, esaterako: ubeldearen eguna, gaztain edo

sagar eguna... "Ekimen politik dira, naturara hurbiltzeaz aparte elkar ezagutzeko aukera ematen dute, gure arteko harremanak egin edo hobetzeko balio dute... Kasu honetan bezala, herritarrek parte hartuz gero, gauza ederrak egin daitezke!"

>> Iturmendi

Antzezleak eskolan

Arrano Beltza eskolan ikasturte honetan antzerkia baliabide metodologiko gisa erabiltzen ari dira. Haren bidez ikastalde guztia elkarrekin aritu daiteke. Gainera, euskara eta ingurunea bateratu dituzte. Amaia Sanchezek azaldu digunez, "ikasleek hizkuntza ikasi eta praktikan jartzen dute, ikuslegoaren aurrean hitz egiteko gaitasuna lantzen dute eta modu ludiko baten bidez gai bakoitzaren ideiak bereganatzen dituzte".

Ikasturte honetan ikasleek dagoeneko hiru antzezlan jokatu dituzte. Azkena, aurreko ostiralean. Txikien taldea, Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako haurrak izan ziren *Piratak eta azken balea* antzezlan aurkeztu zutenak. Iturmendiko eskolan garatzen ari diren proiektua Albaola itsas faktoriaren bisitarekin osatuko da. Sakanako hainbat herri eskoletako ikasleek Pasaiarako bidea hartuko dute martxoan.



Antzezlaneko piratek itsasontzi bat baino gehiago zituzten. UTZITAKOIA

>> Bakaiku

Ihoteak, urteurren eta guzti

Gazte bakaikuar talde batek herriko inauteria berreskuratuz zuela 20 urte betetzen dira aurten. Urteurrenarekin batera berrikuntzekin dator ihotea. Esaterako, haurren parte hartzea bihar goizean. Bakaikuko Gazte Asanbladak antolatuta du egita-

Egitaraua

>> Otsailak 19, ostirala

Kamarroen erakusketak, elkartean.

>> Otsailak 20, larunbata

Goizean Kamarro txiki.

13:00etan Kamarro txikiendako auzatea.

14:30ean Kamarroen bazkaria.

18:00etan Kamarroen irteera eta harrera plazan.

20:00etan XX. urteurren ospakizuna. Ondoren auzatea.

00:00etan DJ Tirry & Terry.

raua. Informazio gehiago azken orriko elkarrizketan.

>> Ihabar



Gaztetxoek ere larunbateko puska biltzean parte hartu zuten. MAIALEN HUARTE

SAKANA

Lehen sorospenak nola egin jakiteko

Ezbehar txiki edo handi bat paretan suertatuz gero, zauritutako pertsona nola tratatu badakigu? Lehen sorospenak nola egin behar diren ikasteko tailerra antolatuta du Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Atakondoko guraso elkartearekin batera. Bere eskualdeko gurasoei eta eskolako irakasleei eta langileei zuzenduta dago tailerra. DYA elkarteko kideek ematen dute trebakuntza hurrengo hiru astearteetan (otsailak 23 eta martxoak 1 eta 8). Parte hartu nahi dutenek 948 600 694 zenbakira hots egin edo ssbirurtzun.izabala@gmail.com e-postara idatzi beharko dute.

>> Etxarri Aratnatz

Udalak kontuhartzaile lan poltsa osatuko du

Etxarri Aranazko Udalak kontuhartzaile lanpostuan behin behinekotasunean aritzeko lan poltsa sortu behar du, beharren arabera, etorkizunean kontratazioak egiteko. Adinez nagusi izatearekin batera, lizentziatura eta C1 euskara maila eskatzen ditu, besteak beste, Etxarriko Udalak. Interesatuak izen ematea udaletxean egin dezakete, hilaren 26ko 14:00ak arte. Dagokion instantzia osatu, nortasun agiria eta merituak aurkeztu beharko dituzte. Euskara proba egin behar dutenek Sakanako Mankomunitatearen Lakuntzako egoitzan dute hitzordua, hilaren 29an, 9:30ean. Azterketa teorikoa, berriz, martxoaren 1ean izanen da Etxarriko liburutegian. Deialdiari buruzko informazio guztia www.etxarriaranatz.eus-en dago.

>> Olatzagutia

Hiri inauteriaren txanda orain

Maria Arrokkak aurreko ostiralean inauteria iragarri ondoren zamarroak larunbatean presente izan ziren. Baina inauteri ospakizunak despeditzeko hiri inauteria falta da. Bihar lagun koadrilek taldeka mozorrotuko dira. Batzuk, gainera, gurdiak egiteko ohitura dute. Eguerdian areto futboleko pistan bat egingen dute guztiek, handik kalejiran abiatzeko. Aurten, estreinakoz, udalak gurdi lehiaketa

ta antolatuta du. Kalejiraren aurretik izena eman beharko da. Epailak egoki jotzen badute 200 eta 100 €ko sariak banatuko dituzte.

Kalejiraren ondoren, herri bazkaria izanen da frontoian. Bazkailondoan Los Pasai txarangak alaituko du giroa. Eta Nemux diskoaren dantzaldia izanen da 19:00etatik 23:00etara. Dantzaldian, 20:00etan gurdi lehiaketako sari ematea izanen da.



>> Altsasu



Piratak, mariatxiak, sanferminlariak, zirkuak... denetarik izan zen ihoteetan.

>> Ziordia



Mozorro gau animatua izan zuten ziordeak larunbatean. UTZITAKOIA

>> Altsasu

Udalak 6,82 milioi kudeatuko ditu

Altsasuko Udalak aurtengo aurrekontua onartu zuen herenegun. Udalak aurtengo guztira 6.822.865,03 euro izanen ditu kudeatzeko. Haie-tatik 5.462.370,14 euro udalaren jardunerako dira, 1.018.770,13 euro Aita Barandiaran adinduen egoitzarako eta 341.724,76 musika eskolako patronaturako dira. Alkatearen kalitatezko botoarekin egin zuen aurrera aurrekontuak. Geroa Bai izan zen aurrekontu proiektuaren alde bozkatu zuena. EH Bildu abstentitu egin zen eta kontrako botoa eman zuten PSNk, Goazen Altsasuk eta UPNk.

Aurrekontua onartu aurretik zinegotziek zirriborroari aurkeztutako 19 emendakin bozkatu zituzten. Geroa Bairenak, aurrekontu tramitean sortutako premia berriei erantzuten zitelaz azaldu zuen Javier Ollo alkateak. Horiek aurrera egin zuten. Gazte guneko begiraleen ordutegia zabaltzeko zen baitemen-

dakin aurkeztu ziren. Taldeak ados zeuden, baina diruazeinsailetik eratzeko iritzi kontrajarririk sortu zituen. Azkenik, kontuak onartu ondoren diru-sail hori aurrekontu-emendakin bidez handitzeko konpromisoa hartu zuen udal batzak. 10.681,2 euro izanen dira.

Inbertsioak

Altsasuko Udalak inbertsioetara 380.089,84 euro bideratu ditu aurtengo aurrekontuaren bikoitza. Inbertsio horien artean jasoa dago Nafarroako Gobernuak 0 eta 3 urte arteko haur eskola egiteko udalari emandako 250.000 euroak. Diru horri haur eskolaren aseguru etetik udalak jasotako 258.270,01 euroak batu behar zaizkio. 508.270,01 euroak haur eskolara bideratuak ditu udalak. Orain bideragarritasun plana egin beharra du.

Bestalde, Nafarroako Kontu Ganberak eskatu bezala udalak dituen ondasunen, ibilgailuen eta informatika ekipoen inventarioa eginen du aurtengo. Bestalde, musika taldeek kexu azaldu dira eszenatoki toldoaren egoerarekin.

Geroa Baik aurrekontuaren aurreneko lehen zirriborroan eszenatoki berri bat erosteko 35.000 euro bideratu zituen. Baina tramitazioan beste lehentasun batzuk ikusi ditu eta egungo eszenario-errendako toldo berria erostea erabaki da. Oholtza berria heldu den urterako izanen dela esan dute alkatezuek.

Baso lanetara udalak aurtengo 70.529,78 euro bideratu nahi ditu (31.425,20 euro Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza lirarekin). Hori eskuratu ahal izateko lehen proiektua egin beharra dago eta hura egiteko 2.372,56 euro jaso

Udalaren aurreraketa

Zer	Euroak
Zelandi eskolako komunak	51.000*
Zelandi frontoiko teilatuko itajurak konpontzea	13.853,77
Udaletxe atzeko patioa itxi	13.310
Betierreko pista konpontzea pinudira sartzeko	10.627,44
Eszenatoki toldo	10.521,41
Udal ondasunen inventarioa	7.260*
Lorezaintzako makineria	6.000
Informatika ekipak	6.000
Txunkai auzoan urbanizazio bat	4.592,07
Udal artxiboa egokitzeko altzariak	4.500
Gatza zabaltzeko makina	3.600
Gaztegunerako ekipamendua	3.374**
Basoko inbertsioak zehazteko proiektua egiteko	2.372,56
Lanen brigadarako ibilgailua	2.300
Basorako makineria	1.300

*Udalak eta departamentuak erdibana.

**Aseguruak ordainduko ditu.

da aurrekontuetan.

Enpleguaren sustapena

Altsasuko Udalak zortzi pertsona sei hilabetez kontratatuko 106.608 bideratuko ditu euro (47.952 Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntza). Kontratazio horiek

udal lan brigadan duen langile premia estali nahi du eta, bide batez, finantza-krisiaren ondorioz sortutako langabeziaren kontra egin nahi du. Berdintasun Batzordeak proposatu du kontratatuen erdiak emakumezkoak izatea. +www.guaixe.eus



Iritziak

EH Bilduko bozeramaile Arantza Bengoetxeak haien abstentzioa arlo teknikoan eta politikokoan oinarritu zuen. Lehenean, 2009ko aurrekontuan izan ziren murrizketen efektuak zuzentzeko planaren lehen urrats gisa definitu zituen aurtengo udal kontuak. Bestalde, alkatezako taldeari udalaren ibilgailuen berritzeko plana eta dermioko bideen kontserbaziorako hainbat urtetako plana egitea eskatu zion, beste eskaera batzuekin batera.

Arlo politikokoari dagokionez, EH Bildukoak esan zuen: "alkatezako taldeak aurrekontua kudeatzerakoan kasu askotan ardua eta lan falta ikusi ditugu". Udaleko gazteria, kultura edo komunikazio arloko gabeziak ere salatu zituen.

Bengoetxeak adierazi zuen gusatuko litzaikeela PSNren eta Goazen Altsasuren aurrekontuaren inguruko lana "positiboan egin izatea. Pena da, askok uste dutena baino gehiago partekatzen dugulako".

PSNk aurrekontuaren kontrako botoa bi diru-sailengatik argudiatu zuen: ikastolari egindako ekarpena (38.000 euro) eta Sakanako Mankomunitateari egindakoa.

Juan Migel Perez Hurtadok esan zuenez, udalak langabeen kontratazio gehiago egin beharko litzuke.

Goazen Altsasuk (GA) aurrekontuaren kontrako botoa eman zuen. Virginia Alonso eledunak aurrekontua egiterakoan herritarren parte hartze falta salatu zuen. "Altsasuarren parte hartzearen bidez erabakitako proiektu baterako diru-sail bat sortzea eskatu genuen irailen". Gerora altsasuarren parte hartzea sustatzeko eskaerak egin dituztela gogorarazi zuen. Horrekin batera, udaleko sailen langile premia kontuan hartzeko eskatu zuen. Baita "gizarte larrialdietarako bideratutako diru-saila handitzea ere".

GA aurrekontuak egiteko prozedura salatu zuen: "informazio batzorde gutxi egin dira eta teknikariei esker sail batzuetatik aurrekontuari egindako proposamenak ezagutu ditugu". Informazioa eskatu behar izan dutela eta zenbait aldagarriren berri ez dutela jaso salatu zuen. GAkoek aurrekontuak lantzerakoan "proposamen guztiak aztertu eta adostu ahal izateko lan bileren falta" sumatu dute. **UPNko** Javier Lopez Patusek aurrekontuaren kontrako botoa honela argudiatu zuen: "udalean

gelditu daitekeen diru zergatik joan behar du Mank-era udalean bertan kudeatu badaiteke". Enplegua sortzea lehentasuna izan beharko lukeela esan zuen.

Geroa Baik bozeramaile Unai Hualdek azaldu zuenez, aurrekontu proiektua "taldeen artean aski azaldu eta eztabaidatu da, prozesu gardenena eta parte-hartzaileena egiten saiatuz". Hualdek "hurrengo aurrekontuetan altsasuarren parte hartzea bermatzeko publikoki konpromisoa" hartu zuen. Aurtengoan halakorik ez zela izan aitortzearekin batera. Horretarako formula egokienak aztertzeko prest azaldu zen alkatezako taldea. Udalen finantziarioa hobetzeko eskaera egin zen. Aurrekontuari dagokionez, udal sailen jarduna mantentzeko aurrekontua zela adierazi zuten alkatezako taldeak. Aurreko legegintzaldian izandako murrizketen ondorioak zuzentzeko Hualdek esan zuen Geroa Baik eta EH Bilduk bat egiten dutela. Hala ere, koalizioa ez zela aurrekontuaren aldeko bozka espero zuela adierazi zuen. Egokiak iruditu zaizkigun proposamenei kasu egin diegu". Egindako ekarpenengatik talde guztiegi eskerrak eman zizkien. +www.guaixe.eus

Mank hizpide

Altsasuko Udalako udal bilkuran Sakanako Mankomunitateari egiten dion diru ekarpena hizketagai izan zen, beste behin. **PSNk** udalak Mank-i egiten dion diru ekarpena (543.965 euro) birnegoziatzeko eskatu zuen, "ea zein atal jaitsi daitekeen aztertzeko. Esaterako, euskararena (150.000 euro). Udal honetan duen eragina minimoa da". PSNtik hitz egitera esertzeko eskaera egin zuen. **Goazen Altsasutik (GA)** Mank-i buruz "planteamendu politikoa falta" salatu zuen. "Aurrekontuaren %9,5-10 inguru bideratzen diogu Mank-i eta uste dugu aparteko arreta merezi duela". Gatik adierazi zuten "formula mankomunitatearen, komuneko lanaren, eraginkortasunaren eta efizientziaren alde gaude; ondorioz, elkartutako zerbitzuen hobetzearen alde gaude". Baina horrek udal jarduna "ito edo zaildu gabe". Horregatik, Gak Altsasuk Mank-en duen parte hartzeaz, aurrekontuaz eta hobekuntza posible ez hitz egiteko foroa sortzea proposatu zuen.

Geroa Baik azaldu zuten, "Mank-eko aurtengo aurrekontua onartu ez denez, aurreko urteko diru-sail bera mantendu dugu". Gari zuzenduta, Geroa Baik gogoratu zion legegintzaldi hasieran erakunde mankomunitatei buruzko batzordea sortu eta GAko buru izatea eskaini ziotela eta ez zuela onartu. (Batzordea ez da sortu). Geroa Baik gogora ekarri zuten Nafarroako Gobernuak toki administrazioaren mapa zehazteko egitasmoa martxan jarri duela eta han udalen eta mankomunitateen zereginak zehaztuko direla. Geroa Baik Mank-i egindako ekarpena aztertzeko foroa hori izanen zela adierazi zuen, eztabaidaren garrantzia aitortzearekin batera.

EH Bildutik gogorarazi zuten Mank-eko langileak beti informazioa emateko prest azaldu direla nabarmendu zuen. Informazioaz betetako USB memoria bana jaso zela eta han informazio guztia dagoela adierazi zuten. "EH Bildun aspalditik dakigu PSNri min egiten dion bakarra euskararoko bideratutako diru dela". Sozialistek halakorik ukatu zuten.

SAKANA

Dueñasko espetxera martxa

Euskal Herria abian, presoak etxera lelopean, euskal preso politikoak preso dauden Espainiako eta Portugalgo espetxe guztietara martxa antolatu ditu ezker abertzaleak biharko. Eskualde guztietatik abiatuko dira autobusak. Pirinioetakoak eta Sakanakoak elkarrekin Dueñas espetxera abiatuko dira. Bi autobusek hartuko dute Palentziarako bidea. Sakanarrak hartzeko aurreneko geldialdia 8:30ean Irurtzunen egingen dute. Etxarri Aranatzeko eta Altsasun bete ondoren, martxari ekingen diote. Behin espetxera iritsita enkartelada egingen dute, musika eta globo aireratzea ere egingen da.



Abian prozesuaren baitan ezker abertzaleak espetxeetara martxan deitu ditu.

Haren ondoren Sakanara bueltan etortzeko.

Euskal estatua helburua duen Abian gogoeta prozesuan buru belarri ari da azarotik ezker abertzalea. Lehen fasean ekarpenak txosten batean jaso dituzte. Bigarren fasean herrietan, eta espetxetan, eztabaidatzen hasiko dira. Baina horren aurretik, eta prozesuaren baitan, ezker abertzaleak espetxeetarako martxak antolatu ditu. Haien helburua da: “presondegietan eztabaida behar den bezala eman dezaten dispertsio eta sakabanaketak eragindako baldintzak salatu eta Euskal Presoen eskubideak aldarrikatzea”.

Irurtzun

Euskaltzaleen topagunearen batzarra

Aizpea, Irurtzungo euskaltzaleen topaguneak, batzar orokorra deitu du biharko, 11:30ean, Pikuxar euskal txokoan. Aizpean elkartzen diren euskaltzale irurtzundarrak joan den urteko errepaso egingen dute, bai jardunaren baita diru kontuena ere. Horrekin batera, Aizpeako zuzendaritzak aurtengo asmoen berri ematen du. Galde-erreguen txandarekin despidituko da batzarra.

Altsasu

Ukrainan ari diren nazioarteko brigadistek buruzko argibideak

Gaur, 19:00etan, Altsasuko gaztetxean. 21:00etan elkartasun afaria izanen da

Esquindarren mobilizazioen ondorioz Ukrainiako gobernuak erori egin zen eta 2014ko otsailean gerra sortu zen. Ukrainatik bereiztu nahian dabilta Donbass eta Lugansk eskualdeak. Azken horretan ukrainarren eta bere aliatuen kontra borroka egingen duen Prizrak brigadak bere baitan antifaxistez eta internazionalistez osatutako unitatea sortu du: Interunit. Hainbat herrialdeetako boluntarioek osatzen dute brigada hori. Hari buruzko argibideak ematen dituzte gaurko hitzaldian. Hitzaldiaren antolatzaileek azaldu dutenez, “brigadakoek egunero Kieveko ejertzitoaren masakrea gelditzeko borroka egingen dute”. Gaineratu dutenez, “Interunit talde politiko-militarra, nazismoaren eta faxismoaren kontrako eta aurreko mendeko beste liberazio borrokan herentziaren segida da, eta Espainiako gerra zibileko lelo bat bere hartu du: *no pasaran!*”.

Askapenaren brigadetan izena emateko aukera zabalik

Martxoaren 31ra arte egin daiteke. brigadak@askanepa.org helbidearen bidez argibideak ematen dituzte

Sakanako Askapenako kideek jakinarazi dutenez aurtengo Mexiko, Venezuela, Brasil, Argentina, Uruguay, Bolivia, Palestina, Sahara, Grezia, Sardinia, Herrialde Katalanak eta Andaluzia ezagutzeko brigadak antolatu dituzte. Hiru hamarkada darama erakunde internazionalistak brigadak antolatzen. “Milaka lagun izan dira elkartasun internazionalistaren esperientzia praktiko honetatik aberastu direnak, elkar truke militante honen partaide izan eta herrien arteko xamurtasuna gertu gertutik sentitu dutenak”. Sakanako Askapena-

tik dei egin diete “munduko edozein injustizia bere baitan sentitzeko gai diren orori”, brigadetan parte hartzeko. Horrela, “gisa honetan iraultzaile eta euskal internazionalista bezala erantzunez”.

Askapenako kideen iritziz, “brigadak oso lanabes garrantzikoak dira askatasun sozial zein nazionalaren alde borrokan dirauten herrien arteko zubiak eraikitze, lanabes ezinbestekoak halaber, Euskal Herri Internazionalista eta antiimperialista sortzera bidean”. Hori horrela izanik, aurtengo brigadek “balio politiko erantsia” dutela ziurtatu dute. Espainiako Auzitegi Nazionalen Askapenaren kontrako “epaiketa



Chiapasko zapatistak. Aurreko urteetan brigadistek haien berri izan dute.

politikoaren” ondoren heldu dira. Epaiketa hura “Euskal Herriaren zein gainerako herrien askatasunaren aldeko konpromisoa zapaltzeko eginahetan epaiketa

politiko bat gehiago” izan zela azaldu dute Askapenatik. Haiek ez ziren geldi egon, “ez diogu gure proiektu eta lan internazionalistari muzin egin”.

Altsasu

Altsasuar batek sortutako erakunde bateko kideen Nafarroarako bisita

Txileko Santiago hiriburuan, 1946ko irailaren 29an, Estadio Español elkarte anonimoa sortu zen. Aurreneko zuzendaria Rufino Melero Lopez de Goikoetxea altsasuarra izan zen. Sustatzaileen artean Uribe (Fernando) eta Maiza (Jose) moduko abizen sakandarrak zeuden. Urte hartako lastailaren 12an Santiagoko Las Condes komunako Nevería kalean egoitzako lehen harria jarri zuten, lau urte geroago mustuko zutena. Estadio Español gaur egun 3.500 familia biltzen dituen kultura, gizarte eta kirol erakundea da.

Erakunde horretako 50 gazte osatutako talde bat estatuan barna bira egingen ari dira. Nafarroako Gobernuko Hiri- eta Erakunde Harremanetarako kontseilari Ana Ollok harrera egingo du. Ollok Mele-



Ana Ollo kontseilariak txiletarrei harrera egin zien astelehenean.

ro XIX. mende bukaeraz geroztik Txilen kokatu ziren eta “herrialde haren aurrerapenaren eta gure kul-

tura eta errealtatea zabaltzearen alde ekarpena egin zuten” nafar askoren sinbolotzat hartu zuen.

Olatzagutia

Udal kirol azpiegiturarako kudeatzaile bila

Erburua Olazti SL enpresa publikoak hark kudeatzen dituen udaleko kirol instalakuntzetan aritzeko kirol teknikari arduradun-koordinatzaile bat kontratatzeko deialdia egin du. Urte baterako kontratua izanen da. Interesdunek lan eskatzaileak izan behar dira eta Altsasuko enplegu bulegoan curriculum aurkeztu beharko dute hilaren 26ko 14:00ak baino lehen.

Euskara ezagutza, C1 mailakoa (EGA edo baliokidea) eskatzen da. Ez dute neuskar proba egin beharko dute (martxoaren 30ean, 9:30ean, udal txean). Hautagaiak test moduko proba teorika (30 puntu gehienez) eta proba praktikoa (20 puntu gehienez) gaitu beharko dituzte apirilaren 4an, 9:30ean, udal txean. Probak baztertzailerak dira eta hautagaiak bien puntuaketa gutxienez 35 puntu lortu beharko dituzte.

SAKANA



EAJK ziklo berrirako ildoak zehaztu ditu

Herrialdeetako zuzendaritzetako kideak hautatu ondoren, Eusko Alderdi Jeltzaleak Iruñean VII. Batzar Nagusia egin zuen asteburuan. Bata-suna eta indarra izeneko txostena eztabaidatu, bozkatu eta onartu zuten. Horrekin batera, alderdiaren zuzendaritza berria, Euskadi Buru Batzar berria osatuta gelditu zen. Nafarroako Buru Batzarreko presidente den Unai Hualde han dago.

SAKANA

Foruzaingoak sustantziengatik 101 salaketa jarri zituen

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez estupefazianteak izan edo kontsumitzeagatik Foruzaingoak 2.334 salaketa administratibo jarri zituen joan den urtean. Haietatik 101 (%4,32) Altsasuko polizia etxearen bidez egin ziren (Ziorditik Leizarte-ko eremua hartzen du). Halakoetan gutxienez isuna 600 eurokoa da. Foruzaingoak Nafarroan honako sustantziengatik jarri ditu salaketak: marihuana (%54,97), haxixa (%19,36), speeda (%12,25) eta kokaina (%4,97). Foruzaingoak jakinarazi duenez, prebentzio kontrolen bidez egindako polizia ikerketaren ondorio dira salaketa horiek. Berezi aztertzen dituztenak ikastetxe inguruak eta herrietako festak dira. 2014rekin alderatuta speed atzemaiteak gora egin dute kokainaren aldean, azken hori garestiagoa baita. Haxixaren atzemaiteak ere behera egin dute marihuana merkeago delako eta jendeak auto-ekoiztu egiten duelako.



Udalak baso aprobetxamendua saldu du

Olatzagutiko Udalak Altzania eta Basabeko herri basoan, Sagarmisari, Kintanatik, Muskilin alderdian eta zati txiki bat Lesundegi alderdian, dagoen 1.621 haritz kandugabek osatutako lote bakarra saldu du. Explotaciones Forestales Zubillaga Saralegi SL enpresak 139.225 eurotan eskuratu du lotea.

Irurtzun

Himalayarako 387 euro

Eguberritako programazioaren barruan Irurtzango Udalak Mikel Zabalza mendizalearen proiektua eta hitzaldia antolatu zuen. Kultur etxera joan zirenek borondatezko sarrera ordaindu zuten. Jasotako 387,8 euroak SOS Himalaya fundazioaren bitartez Nepalgo lurrikararen ondorengo txikizkoak berreraikitzen bideratu dira.

Zure ordenagailuak pott egin badu, lagundu zaitzakegu

- Sakanako etxe guztietara joaten gara
- Doako eta konpromezu gabeko aurrekontua
- 90 eguneko bermea

Harremanetarako

644 244 277

Doble click

Altsasu



Parlamentuak sexu eraso salatu du

Nafarroako Parlamentuko Bozerramaileen Batzardeak Altsasun otsailaren 7ko goizaldean izan zen sexu eraso salatu zuen astelehenean. Altsasuko Udalak onartutako adierazpenarekin bat egin zuen Bozerramaileen Batzardeak. Hala, edozein jardueran matxista salatu du, izan erakunderen edo pertsonaren batek egin. Batez ere, emakumezkoen osasunaren, duintasunaren eta askatasunaren kontrako eraso larria bada. Batzordeko kideen ustez ez festa giroak ezta sustantzien gehiegizko kontsumoak ere ez dute halakorik justifikatzen. "Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko botere eta ezberdintasuneko gizarte harremana da halako erasoen jatorria". Batzordeko kideek indarkeria jasan dezaketenean edo pairatu duten emakumezkoen egoerakiko konpromisoa azaldu dute. "Indarkeriaren kontrako prebentzioa sustatzea eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna lortzeko lana" bulkatu beharra aipatu du batzordeak. Gizartearen berdintasunarekin eta indarkeriaren prebentzioarekin zerikusia duten jardueretan parte hartzeko eskaera luzatu diete. Azkenik, altsasuarrei espazio publiko eta pribatu nahi bezala askatasun okupatzen segitzeko dei egin diete. Eta, gizonezkoen emakumezkoen indarkeriaren mantentzean duten arduraz hausnartzeko deia egin diete, horren arabera ekiteko eskatuz.

Arakil

Gurasoak, gaztetxoak eta drogak

Osasunbideak gazteen drogen kontsumoaren prebentzioa egiteko haien gurasoak trebatzeko programak dira. Hobe esanda, autoprestakuntza programa da, gurasoek gurasoei eskainia. 15 urteko ibilbidea du programak eta bere helburua ikastetxeetan gaztetxoek gurasoek drogen gaiak hausnartzeko espazioak sortzea da. Lagunekin ateratzen sortzen diren kezak; ordutegiak, pagak, drogei buruzko informazioa, alkohol edo tabako lehen kontsumoak eta besteri buruzkoak partekatuko dituzte gurasoek.

Herrialdeko bederatzik ikastetxeetan gurasoak talde irekietan elkartuko dira eta gaztetxoek drogen kontsumoaren prebentzioan

Irañeta

Gutxirako aurrekontua

Irañetako Udalak 168.468 euroko aurrekontua du aurten. Juan Angel Beraza Gastesi alkateak esan digunez, udala ekonomikoki larri dago, zorpetze tasa altua du eta ezer gutxi egiteko aukera du. Aurrekontuaren zati bat maileguak ordaintzera bideratu da. Udaberri hasiera aldera irintarrei kontuak batzarrean aurkeztea nahiko luke. Udalak aurten aurreikusten duen inbertsio handiena bargan, iturburuen inguruan, egingen duten itxitura da. "30 urte ukitu gabe egon da eta egin beharra dago, bestela azia sartzeko da eta". Inbertsio horri aurre egiteko udalak pinu lote bat saltzeko asmoa du eta salmentatik derri gorrean baso lanetara bideratu beharreko %20a itxiturarako izanen da.

Nafarroako Gobernuak Irañetako ur biltegia berritzeko premia aspaldi ikusia du. Baina dirurik ez duenez, irintarrak lan hori egiteko zain daude. Nilsa enpresa publikoak, bestalde, joan den urtean gaizki zegoen hobi septikoa araztegiagatik ordezkatu zuen. "Kontu



Txapel Azpi elkartera sartzen.

txikiak falta dira, baina martxan dago" azaldu digu alkateak.

Auzolana

Udalak dirurik ez badu ere, Irañetan egin behar badaude. Horietako batzuk egiteko bidea auzolana da. Urtean familiako lau auzolan egiten dituzte; zazpi edo zortzi auzolan urte guztian. "5-7 pertsona elkartzen gara aldiko. Batzuk

deialdi guztietara joaten dira. Garbiketarako, konponketak eta bestelakoak egiten ditugu". Batzuk auzolana egin beharrean dagokiena ordaintzen dute. Alkateak, ordea, auzolana egitearen beharra nabarmendu du, egin beharrekoak horrela egiten direlako. Horregatik, alkateak esan digu jendeak auzolanen garrantziaz mentalizatu beharko lukeela.

SAKANA

Hondakindegia ixteko lanek Mank-en aurrekontua atzeratu dute

Europak hala eskatuta hondakindegia guztiak itxi behar dira. Sakanako Mankomunitateak 2010ean aurkeztu zuen proiektua, Toki Administrazio Departamentuak onartu zuena. 1,2 milioi euroko inbertsioa zen egiteko baina departamentuak dirurik ez zuenez bertan behera gelditu zen.

Nafarroako Gobernu berriak hondakindegia ixteko lanari heldu dio. Mank-eko ordezkariak joan den urtean hasi ziren Nilsa enpresa publikoko, Ingurumen eta Toki

Administrazio Departamentuarekin bilerak egiten. Lehenengoarekin proiektua gauzatzeko, bigarrenak baimena emateko eta, azkenak, finantzatzeko.

Mank-eko buru Aitor Karasatone Mugurutzak esan digunez, egungo hondakindegia itxi, lizibiatuak jasotzeko gunea iragazgaitz bihurtzea eta likido horiek Arbizu-Lakuntzako araztegiaraino eramatea litzateke asmoa. "Departamentuaren laguntza %80koa bada ere, Mank-ek jarri beharrekoa dirutza da eta

hura zehaztu arte ez dugu aurrekonturik onartuko".

Hondakindegia

Mank Nafarroako Hondakin Partzuergoan sartu zenetik hondakindegian soilik industria hondakin bizigabe ez arriskutsuak botatzen dira. Mank-ek halakoendako gune berri bat nahi du, ibarreko enpresek 8 urte gehiagor Arbizun hondakinak bota ahal izateko. "Haiei zerbitzu bat eskaintzea, kanpora eraman behar ez izateko".



Atakondoa ikastetxera sartu-irteten. ARTXIBOA

drogen erabilerari buruz nola hitz egin, aurreneko kontsumoen aurrean nola jokatu, gatazken konponbidea, aisialdiaren erabilera egokia eta beste. Bitartekariak

jasotakoa euren ikastetxeetara egokituz, proiektua ondu dute. Horretan ikastetxeko guraso elkarrekin eta heziketa taldearen laguntza izan dute.

GRUPO TANATORIO IRACHE TANATORIO TALDEA 948 197 070 Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com

Vicente Uranga Azcarate Gure bizitza argitzen zuen txinparta zinen. Beti egonen zara gurekin. Ez zaitugu inoiz ahaztuko. Maite zaitugu! Zure emaztea, seme-alabak eta bilobak Lakuntza.

Pako Aristorena Osteriz Hein irruti, hein gertu. Beti gukin. Be aldeko meza iyendien, otsailan 21ien, eguerdiko 13:15ien, Lizerrako elizen. Lizerrakó lagunek Lizarraga-Ergoiena.

Oroigarriak GUAIXE KOMUNIKAZIOA 948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com 1 HIGIEZINAK 2 TEKNOLOGIA 3 LANA/NEGOZIOAK 4 DENETARIK 5 IBILGAILUAK 6 HARREMANAK 7 AISIA/KIROLA 8 FAMILIA/ETXEA NORBANAKOEN IRAGARKIAK Guaixe astekarlan: Astebate: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€.

Lana/ Negozioak LAN ESKAINTZA Euskara irakaslea behar dut Hezkuntza Eskolako goi-mailako azterketa prestatzeko. Interesatuak hots egin dezatela 669 97 63 44 telefonora. Iñaki oinetakoak. Etxarri Aranatzeko negozioa eskualdatzen da. Tel 649 33 18 43. Higiezinak ETXEBIZITZAK SALDU Pisua salgai Etxarri Aranatzeko. 84 m2 erabilgarriak, berritua, eguzkitsuak, 3 logela, komuna, egongela, sukaldaria, trasteleku bat pisuan bertan, berogailua. 72.000 €. Tel 654 23 41 02. ERRENTAN EMAN 80 m² dituen etxebizitza alokatzen dugu Etxarri Aranatzeko. 3 logela, sukaldaria, komuna eta egongela. Altxariz horniturik. Garajea eta 30 m² ko lorategia barne. Tel 609 84 55 99.

Lakuntzako elkartera zozketa. Zerbaki sarituak, hauek dira: Egur berogailua, 1244; Gurutz saskia, 828; Brindi saria, 681; Eder saskia, 2393; ardo loteak, 121, 1886 eta 2376. Goiener Iruñean. Landare utzitako lekuan, Joaquín Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilaibete lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zabaldu argitzea, ekarpenak egitea... Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxoan dagoen jarduera zuzentzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalazten eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965. Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94. 3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811 Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela. Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkideak izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com Eskuratu zure belexeguaie txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean: www.guaixe.es.

HARREMANETARAKO Telefonoa: 948-56 42 75 Posta elektronikoa: zorian@guaixe.eus

JAIOTZAK • Souhayl Douife Jaoudi, otsailaren 8an Irurtzun. • Iraia Sanchez Aristorena, orsailaren 10ean Etxarri Aranatzeko. • Elene Marroyo Mariezkurrena, otsailaren 15ean Etxarri Aranatzeko. HERIOTZAK • Rafael Maestu Ramirez, otsailaren 9an Altsasun. • Maria Galarza Galarza, otsailaren 13an Urdiainen. • Vicente Uranga Azkarate, otsailaren 14an Lakuntzan. • Isabel Molina Linde, otsailaren 14an Iturmendin. Informazio hau epaitegietan eta udalengan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Opatutakoak/ Galdutakoak OPATUTAKOAK Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Bataurrekoak eta bataurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak. Artilezko txano grisa opatu dugu. Otsailaren 17an, Altsasuko Gartzia Ximenez kalean. Deitu 948 564 275. Ikastaroak Udako Euskal Unibertsitateak (UEU). Bere udaberriko eskaintza aurkezten du. Otsaila eta maiatza bitartean 4 ikastaro eta 4 hitzaldi antolatu ditu Nafarroan, www.ueu.eus Oharrak Amalur Montessori Haur Eskola. Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua, beren ongi-

zatea bermatzen duen proiektu euskalduna. Harremanetarako 620 25 42 30 eta amalur@amalurelkarrea.org Elkartera zozketa. Ukraina antifaxistarekin elkartera zozketa antolatu dute hilaren 19rako Altsasun, 21:00etan. Biltoki eta Lezea tabernetan eman daitezke izena. Egundun berean, 19:00etan Interunit brigadako kideek hitzaldia emanen dute gaztetxean. EGA prestatzen lagunduko dizut ingelesarekin laguntzen badidazu. Tel 634 42 29 74. Liburu aurkezpena. “¿Quién con fuego?” eleberria aurkezten du Carlos Olló Razkinek Zierdiko liburategian otsailaren 25ean, 18:30ean. Irurtzongo irakurle taldea. “La madre” - Maximo Gorki. Martxoaren 3an, 18:00etan liburategian. Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerriean operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korronte honetan sartu dezake dirua: ES 33 2100 5365 2301 0002 9770. Lamias, Nafarroako Emakume Gazteak. Atzerriean dauden Estatu espainiarreko gazteendako kompetentzia digitalak on line eta doan ikasteko aukera. Prestakuntza-programa 2016ko martxoaren 7an hasiko da eta bukatu ekainaren 5ean, 140 ordu izanen dira. Plaza mugatuak. Argibide gehiago: formacion@mujeresjovenes.org. Izen ematea: http://ow.ly/Xgg9Y Benigno Mendia omentzeko auzolana. Apirilaren egun osoko omenaldia egingen da Urdiainen. Proiekturako den ikusentzuzko egiteko argazkiak behar dira. Baita egunean bertan lan egiteko. Harremanetarako: benignolagunak@gmail.com Berria Beka. Berria Hedabideen Fundazioak, Berria Taldearen eta Laboral Kutxaren laguntza, Berria bekaren hirugarren aldirako deialdia egin du, euskara, hedabideak eta teknologia berriak kontuan hartuta proiektu berriak sortu eta martxoan jartzeko. Proiektuak 2016ko apirilaren 1erako aurkeztu beharko dira eta proiektu irabazleak 12.000 euroko laguntza jasoko du proiektu martxoan jartzeko.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publiko inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199. Lugarri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanako produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugarri, inguruko nekazaritza eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugarrik. Lugarriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugarriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoak, olioak, gazta, arrozak, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezta, arrautzak, garga-gardoa, lekaleak, ospina... Informazioerako: 656 711 130 (Gorka). Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko Boluntarioen Kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldako tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irraria zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak. Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigratio Zerbitzuak martxoan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalai, eta baita etorkin berriei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinetan direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzeko, astelehenetan Irurtzuneko eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazio@sakana-

mank.com posta elektronikoa. Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intoxiopia gatzegunean (Burunda kaleko sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte. Izan zaituz Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, asteen behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratu du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informazioerako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria. Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskal Memoria.com webgunean.

ARETO FUTBOLA

MAGNA GURPEA LANERA: Eurokopako etenaldiaren ondoren -Espainiak irabazi du, Magnako Rafa Usin taldekide zela- liga

itzuli da eta sailkapenean 5.a den Magna Gurpea Xotak gaur 11.a den Levante izango du aurkari, 20:30ean, Anaitasunan.

Pilota

Testua eta argazkia: Eñaut Agirrebengoa

Kirol gehienetan bezala, esku-pilotan ere elitera iristeagutxi batzuen esku dago. Asko dira afizionatutatik profesioleatarako jauzia ematen saiatzen direnak, baina gutxi galbahea igarotzea erdiesten dutenak. Urrats hori emateko, talentua, zorte apur bat eta gogor lan egiteko gaitasuna eduki behar dira. Bidea gogorra izaten da, malkartsua, baina ez luzea ezinbestean. Horren lekuko da Julen Martija. 18 urte besterik ez dituela, Etxeberriko atzelaria Asperekin debutatzen da. Aitortu duenez, eman zaion aukera sinistea oraindik kostatzen da: "Enpresarekin soilik entrenamendu bat egindakoa nintzen, beraz, ez nuen inolaz ere espero debutatzeko aukera horren azkar ematea. Ametsa da niretzat. Uste dut oraindik ez dudala guztiz sinistu".

Ziztu-bizian, kasik oharkabean iritsi da Martija elitera. Pilotan sei urterekin hasitzen, Irurtzungo pilota eskolan. Egun profesional diren pilotari askoren kasuan ez bezala, etxeberriarak kirol honekiko duen zaletasuna ez da senitartekoengandik eratorria. Pilotak txikitatik erakartzen zuen, "futbolak eta gainontzeko kirolek baino dezentetegiago". Horrela, lagun batzuekin batera Irurtzunen jokatzeko hasi zen. Gozamenagatik jokatzeko zuten, asko gozaten baitzuten. Irurtzunen ezentzian, Etxeberriko pilotaleku tipian aritzen zen pilotari jo eta jo. "Etxeberri oso txikia da, eta ez dago nire adineko pilotaririk. Beraz, normalean bakarrik aritzen nintzen. Asko ere ez zidan axola. Azken batean, jendearekin aritzeko Irurtzungo entrenamenduak nituen".

Irurtzunen 14 urte bete arte aritu zen. Adin horrekin Iruñera joateko abagunea sortu zitzaion, eta ez zuen birritan pentsatu. Irurtzunen oso gustura zebilen, entrenamenduak etxetik gertu egiten baitzituen, eta giro onean. Haatik, Iruñean bere adineko pilotari dezentetegiago zeuden, eta hori ingurune hobeia ei zen pilotari bezala garatu eta hobetzeko: "Irurtzunenetik Iruñera alde txikia dago azpiegiturari

Julen Martija, denbora gutxian loratu den pilotaria

ETXEBERRIKO ATZELARIAK PROFESIOLEATAN DEBUTATUKO DU OTSAILAREN 21EAN, EIBARKO ASTELENA PILOTALEKUAN. BIKOTEKIDE YVES XALABERRI "XALA" IZANGO DU, HONEK PROFESIONAL BEZALA JOKATUKO DUEN AZKEN PARTIDAN.

"Xalarekin aritzea ahaztezina izango da"



Etorkizunari begira dituen erronkak ez dira makalak, baina une honetan Martijak nahiago du igandeko debutean buru-belarri zentratu. Estreinako partida Eibarko Astelena pilotalekuan jokatu du, igandean. Partida oso berezia izango da Etxeberriko atzelariarentzat, debuta egiteaz gain, Xalarekin osatuko baitu bikotea, Lekuinekoak profesioleatan jokatu duen azken partidari. "Ohorea izango da berarekin batera aritzea, pilotari aparta izan baita. Irabazi dituen txapela guztiak dira horren lekuko. Kirol honetan arrastoa utzi duen gizona da. Beraz, berarekin aritzea esperientzia ahaztezina izango da". Retegi Bi eta Cecilio izango dituzte aurkari.

Debutari begira duen gogo-aldarteari dagokionez, bere burua nahiko lasai dakusa, momentuz bederen. Azaldu duenez, normalean partida garrantzitsuenak jokatzeko dituen artegatasuna ez du gehiegi nabaritzen. Kantxan lasai aritzea debutean itxura ona emateko giltza izango dela uste du: "Urduri jarrita gauzak okertu besterik ez dira egiten. Astelena espero dut urduriegi ez jartzea. Lasai ibili ezker, uste dut nire maila emango dudala. Hasieran agian partidari sartzeko apur bat kostako zait, baina behin martxa hartuta ongi moldatuko naizelakoan nago".

dagokienez, baina adin bereko jendearekin entrenatzea izugarri nabaritzen da. Garai hartan jada nahiko onak ziren batzuekin hasi nintzen entrenatzen: Lasorekin, Bakaikoarekin... Iruñeara joateak bultzada handia eman zion nire formakuntza-prozesuari".

Lehenik San Juanen aritu zen, eta ondoren Uhartekopilotaklubera mugitu zen -bertan eman ditu azken hiru urteak-. Martijaren esa-

netan, Iruñean emandako lehen urteetan bere burua ongi ikusten zuen, baina jakitun zen bera baino pilotari hobeak zeudela. Onenengandik maila bat azpitik zegoen. Duela gutxi arte hala egon da, afizionatuen artean nabarmendu gabe. Alabaina, azken hilabeteetan loratu egin da: joa irabazi du, gorputza hartu du, eta horrekin batera bere errendimenduak nabarmen egin du gora. Horren erakus-

le da berriki Xabier Urbietarekin Senior kategoriako Zaldibarreko txapelketa irabazi izana. Diario Vasco Torneoan ere maila onean aritu zen, nahiz eta finala galdu. Merituak egin dituzte jendearen artean bereganatzeko. Eta merituek ordaina ekarri diote: Etxeberriko atzelaria profesioleatan aritzeko prest dagoela erabaki du Aspek.

Erronkak: elitera egokitu eta ikasketekin jarraitzea

Etorkizunari ilusio handi erreparratzen dio Martijak. Ez da gutxiagorako, 18 urterekin debutatzea ez baitago edonoren esku. Aspek eman dion aukera "paregabe" lez definitzen du. Bere esanetan, orain beragan jarritako konfidantzari behar bezalako ihardespina ematea dagokio. Horretarako, txipa aldatu beharko du, afizionatutatik profesioleatara dezentetegi jauzia baitago. Etxeberrikoak garbi dauka bere lehen erronka mailara egokitzea izango dela, baina bere buruari ez dio inongo presiorik jarri nahi: "Hasieran akaso ez da erraza izango, nire adinarekin profesioleatan aritzea ez baita oso ohikoa. Nahiko nukeena da pixkanaka onenengandik ikasten joan, eta kantxan geroz eta erosoago sentitzea. Baina presa nahiz presiorik gabe".

Hastear den etapa berrian pilota izango da bere bizitzaren erdigune, entrenamendu eta partidek denbora asko hartuko baitiote. Dena den, eguneko 24 orduak ez dizkio pilotari eskainiko, ikasketak ere aurrera atera nahi baititu. Jakitun da bi alor horiek uztartzeak esfortzu handia suposatuko diola, baina penamerezi duela deritzo. "Pilotan punta-puntan urte askoz aritzea oso zaila da. Beti gerta daiteke

Martijarekin, Sakanak lau pilotari izanen ditu profesioleatan

Sakanak une honetan hiru ordezkari ditu pilota profesioleatan: Joseba Ezkurdia, Jose Javier Zabaleta eta Aitor Zubieta. Hauetaz gainera, Julen Martija batuko zaie. Etxeberrikoaren aburuz, pilotari sakandarrak maila oso handikoak dira: "Ezkurdia oso aurrelari ona da, eta Zubieta eta Zabaleta atzelari onenen artean daude. Ederrada horrelako pilotariak gertu izatea". Bera bereziki Zabaletan fijaszen da, ia ondoan bizi baitira (bata Etxeberrikoa da, eta bestea Etxarrengoa), baina Zubieta ere erreferente ontzat dauka. "Zabaletak egundoko joa du eskuinarekin. Atzelari onenarikoa edo, akaso, onena da. Eta Zubieta ere, ondo denean, jaun eta jabe izaten da atzeko koadroetan".

lesio larriren bat izatea, edota bat-batean beherakada handia izatea. Beti izan behar da alternatiba bat, helduleku bat, badaezpada". Halaber, garbi dauka kirolean arrakastatzaileak ez duela aldatuko. Pertsona normaltzat dauka bere burua, eta bizimodu normala izaten jarraitu nahi du. "Egia da jendeak agian beste modu batera begiratu koa nuela, baina nik beti bezalakoa izaten jarraituko dut".

Martijaren debutak eta Xalaren agurrak ikusmina sortu du. Arakildik 2 autobus abiatuko dira igandean Eibarrera eta 200 lagun babesa izango du bertan.

Irurtzunen pilotaz gozatzera

Irurtzun klubak pilota txapelketetan murgilduta dago. Larunbatean, 16:45etik aurrera, Zudaire-Ustarrozek Ayesa-Garatea izango dituzte aurkari 22 urtez azpikoan. Ondoren, Irurtzun Zugarralde klubaren kontra ariko da buruzburukoan eta binakakoan.

Amaya
Okindegia-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...



ALTSASU



OLAZTI



948 468 755 **ETXARRI ARANATZ** 948 461 660

Pilota

Bizirik daude

Victor eta Albisuri 22 eta 14 irabazi eta gero finalerdietarako sailkatzeko aukerak oraindik badituzte Ezkurdiak eta Barriolak. Retegi Bi eta Merino II.a dituzte aurkari gaur

Irujoren eta Rezustaren kontra galtearekin makilkada galanta jaso zuten Joseba Ezkurdiak eta Abel Barriolak, baina Aspeko bikoa berriro Binakako finalerdietan sailkatzeko borrokan sartu da, igandean gripeak jota zegoen Artola ordezkatzan zuten Victorri eta Albisuri 22 eta 14 irabazi eta gero.

Aipatzekoa da bai Victor eta bai Albisuri bere mailatik oso behera aritu zirela. Bien artean ia 20 pilota galdu zituzten. Joseba Ezkurdiak eta Abel Barriola serio aritu ziren eta ez zuten aparteko arazorik izan garaipena lortzeko. Hasieratik hartu zuten aurrea. Partida erdian Victor eta Albisuri 15 eta 10 hurbildu ziren, baina Ezkurdiak eta Barriolak berriro ere sakea hartuta, aldea ateratzen hasi ziren eta partida irabazi zuten, 22 eta 14.

“Ez dugu beste munduko partidarik egin, baina serio aritu gara eta guretzat oso garrantzitsua den

Ezkurdia: “Partida gogorra izango da”



Material aukeraketan Ezkurdiak azaldu zenez, “kontentu gaude, ligaxkaren bukaerara finalerdietarako sailkatzeko aukerekin iritsi garela. Hiru partida txarra izan ezik, oso bikote lehiakorra garea erakutsi dugu”. Irungo pilotalekua “hotza” dela nabarmendu zuen Ezkurdiak. “Oso kontzentratuta atera beharko dugu eta partida hasi baino lehen ongi berotu beharko dugu. Hasieratik entxufatuta ateratzen bagara, asko irabazita izango dugu” gaineratu zuen. Nabarmendu zenez, ez dute euren jokoa aldatuko. “Gure jokoa ez da aldatuko Altunak edo Retegi Bik jokatzan badu. Altuna agresiboagoa da eta Retegi Biri oso zaila da tantoa egitea. Partida gogorra eta konplikatu izango da, eta presioari ongi eustea klabea izango da” gaineratu du arbizuarrak.

puntua lortu dugu” adierazi zuen Barriolak partida bukaeran. Lasaitu ederra hartu zuten leitzarrak eta arbizuarrak, berriro ere finalerdietan egoteko borrokan sartzea

lortu baitzuten. Horretarako, gaur, Irunen, Altuna III.a ordezkatu duen Retegi Biren eta Merino II.aren kontra irabaztera derrihortuta daude.

Binakakoa. Saillapena:

1.	Irujo-Rezusta	10 puntu
2.	Olaizola II.a-Urrutikoetxea	8 puntu
3.	Bengoetxea VI.a-Untoria	6 puntu
4.	Artola-Albisu	6 puntu
5.	Ezkurdia-Barriola	5 puntu
6.	Berasaluzte II.a-Beroiz	4 puntu
7.	Altuna III.a-Merino II.a	3 puntu
8.	Iribarria-Merino I.a	2 puntu

Binakakoa. 12. jardunaldia

Ezkurdia-Barriola / Retegi Bi-Merino II.a (gaur, 20:30ean, Irunen. ETB1, ntb)

Olaizola II.a-Urrutikoetxea / Artola-Albisu (larunbatean, 17:45ean, Iruñean. ETB1, ntb)

Bengoetxea VI.a-Untoria / Irujo-Rezusta (igandean, 17:00etan, Eibarren. ETB1, ntb)

Victor-Beroiz / Iribarria-Merino I.a (astelehenean, Tolosan)

Hauteskundeak Pozuetarendako

Asteazkenean Nafarroako Pilota Federazioko hauteskundeak izan ziren. Migel Pozuetaren hautagaitzak irabazi zuten, Pilota Berria hautagaitzari alde handia aterata.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

20. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 4 - MUTILBERA 0

LAGUN ARTEA 0 - BERRIOZAR 1
Hainbat jardunaldi irabazi gabe egon eta gero, Etxarriren garaipen potoloa gustura ospatu zuten zaleek. Etxarri dominatzen hasi zen eta atsedenaldia baino lehen 2 eta 0 aurreratu zen. Gentza eta Josebari esker. Mutilberak baloia jabetza izan zuten, baina arrisku gutxi sortu zuten. Xabatek, penaltz hirugarrena sartu zuen eta minutu eskasera laugarrena. Aldiz, 4. jardunaldi jarraian irabazi ondoren Lagunek igandean ezin izan zuten Berriozarren kontra garaipena lortu. Lagunek dominatu zuten, baina baloiak ez zuten sartu nahi. Bukaeran Berriozarrek gola sartu eta 3 puntuak etxera eraman zituen.

Saillapena >>

1.	Gares	41 p
4.	Etxarri Aranatz	34 p
6.	Lagun Artea	34 p

Asteburuko jardunaldia

BETI CASEDANO - ETXARRI ARANATZ

(igandean, 16:00etan, Amigon)

LAGUN ARTEA - BERIAIN

(Larunbatean, 16:00etan, Beriainen)

ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

20. JARDUNALDIA

ALTSASU 0 - BETI ONAK 0

Altsasuk eta Beti Onak laudeek lehia estua izan zuten. Biek golen bat sartzeko meritua ere izan zuten, baina baloiak ez zuten sarean sartu nahi izan eta berdinketarekin despeditu zen lehia.

Saillapena >>

1.	Lezkairu	53 p
9.	Altsasu	24 p

Asteburuko jardunaldia

UNIVERSIDAD DE NAVARRA - ALTSASU

(Larunbatean, 12:15ean, Altsasun)

Txirrindularitza

2 sakandar Rural Kutxan

O DEI JUANGO LAKUNTZARRAK TALDEAN SEGITUKO DU ETA ENEKO ARAMENDIA ITURMENDIARRAK BURUNDA KLUBETIK RURAL KUTXA-SEGUROS RGA TALDE AFIZIONATURA EGIN DU SALTO. ALBERTO MAZKIARAN ALTSASUARRAK JARRAITUKO DU ZUZENDARITZA LANETAN

Rural Kutxa-Seguros RGA talde afizionatua 2016



Txirrindulariak: Pablo Benito, Ander Alonso, George Jary, Iker Azkarate, Pablo Alonso, Carlos Cobos, Antonio Portela, David Segae, Brian Carrillo, Xavier Cañellas, Manuel Sola, Migel Indurain, Isaac Carbonell, Aitor Rodriguez, Jacobo Ucha, Josu Zabala, Erlend Sor, Sergio Rodriguez, Jon Irisarri, Odei Juango lakuntzaria eta Eneko Aramendia iturmendiaria. **Zuzendariak:** Alberto Mazkianan, Ruben Martinez eta Iban Latasa.

Rural Kutxa-Seguros RGA talde profesional kontinentalaren eta talde amateurraren aurkezpenak egin zituzten aurreko ostegunean Burlatan, Juan Mari Guajardo speaker altsasuarrak gidatuta. Talde profesionalen 19 txirrindulari ariko dira Eugenio Goikoetxea eta Josemi Fernandez aginduetara, eta denboraldi ona egitea eta Vueltan parte hartzea izango dira euren helburu nagusiak.

Talde amateurrari dagokionez, hiru zuzendari izanen ditu: Alberto Mazkianan altsasuarra, Ruben Martinez eta Iban Latasa. Floren

Eskisabel altsasuarrak jarraituko du presidentelanean. Euren aginduetara 21 txirrindulari izanen dituzte, bi sakandar tartean: talde berdean jarraitzen duen Odei Juango lakuntzaria eta Burunda klubetik datorren eta bertan emaitza bikainak lortu dituen Eneko Aramendia iturmendiaria. Eneko Aramendiak Nafarroako Erlojupeko Txapelketa irabazi zuen 2015ean, makina bat proba irabazi zituen, Nafarroako selekzioarekin aritu zen eta eta Iruñeko Itzuliko lehen nafarra izan zen, besteak beste.

Taldeak hainbat fitxaje berri

egin ditu, Euskadi Fundazioko Jon Irisarri tartean. Ampotik Ander Alonso dator, Infisport taldeetik Sergio Rodriguez eta, horretaz gain, Aitor Rodriguez eta lehen esan dugun moduan Burunda Klubetik Rural Kutxara salto egin duen Eneko Aramendia iturmendiaria iritsi dira taldera. Migel Indurainek, Josu Zabalak, Iker Azkaratek eta Odei Juango lakuntzarrak taldean jarraituko dute, eta horiekin batera Antonio Potelak, Alain Santamariak, Xavi Canellasek, Manuel Solak, David Seagek, Erlend Sortek, Isaac Cardonek, Carlos Cobok, Pablo

Burundakoak Mallorcan



Mallorcak hartu zuen Pista Txirrindularitzako Open Espainiako bigarren proba. 135 txirrindulari aritu ziren, tartean Burunda Klubeko Hodei Zia altsasuarra eta Mateo Gonzalez soriarra. Hodei Zia pistan hasi berria da eta esperientzia hartzen ibili zen. Mateo Gonzalezek, berriz, Gaztela eta Leongo selekzioarekin hartu zuen parte, kadeteetan. Bikain aritu zen. Puntuazio lasterketan garaipena lortu zuen soriarrak, scratchean 2.s sailkatu zen eta proba daniarrean 3.a.

Benitok, Bryan Carrok, Pablo Alonsok, Jacobo Uchak eta George Jarik osatzen dute taldea. Helburua ahalik eta lan onena egitea izango da, bereziki Euskaldun eta Lehendakari Torneoetan eta Espainiako Kopan. Proiektu sendoa “egonkortzea” da taldearen helburua.

Taldeak bikain hasi du denboraldia, Jon Irisarrik Gipuzkoako Pista Txapelketa irabazi baitzuen eta Sanroma Memorialean podiumera igo baitzen.


Nobedade moduan, Rural Kutxak emakumeen taldea ateratu du, 15 txirrindulariarekin.

Irristaketa

Sakandarrak bikain Antsoainen

Iratxe Lapuente eta Eneko Pinto irabazleak eta Ana Rita Correia eta Anne Lapuente bigarrenak taldekako erreleboan

Larunbatean Indoor Irristaketa Txapelketako jardunaldia jokatu zen Antsoainen. Sakanako Irristaketa Taldeko kideek lan bikaina egin zuten. Gizonezkoen mini mailan Eneko Pinto izan zen lehena, eta Iratxe Lapuente emakumezkoen benjamin mailan lehena sailkatu zen. Bestalde, haurren mailako binakako erreleboan proban Ana Rita Correia eta Anne Lapuente bigarrenak sailkatu ziren.



Mendi lasterketak



Beraza eskuinean, podiumean.

Berazak hasiera bikaina eman dio denboraldiari

Hirugarrena sailkatu zen Zestoako I. Kobaz Koba Traillean

Hasi da mendi lasterketen 2016ko denboraldia. Igandean I. Kobaz Koba Traila jokatu zen Zestoan. Bi aukera zeuden: 25 km (1.400 m desnibel positiboa) eta 16 km.

Proba luzea 195 mendi korrikalarik osatu zuten eta Xabier Plazaola orendaindaria izan zen azkarrena (2:05:14). Jose Luis Beraza uhartearra hirugarrena izan zen helmugan (2:06:23). "Hasteko ez dago gaizki. Osoongi antolatutako lasterketa izan zen eta giro ederra zegoen Zestoako plazan. Hasi berri den denboraldiari begira kontentua nago, motibatuta" adierazi du uhartearrak sare sozialetan.

Bestalde, Jon Perez de Villarreal urdiaindaria 35.a sailkatu zen (2:25:58), Iker Flores urdiaindaria 44.a (2:27:38) eta Juan Carlos Cano altsasuarra 181.a (3:25:46). 16 km-ko distantzia motzeko proba 143 korrikalarik osatu zuten. Iñaki Mihura baztandarragailenduzen (1:24:34), Mikel San Martin etxarriarra 70. airitsi zen helmugara (1:59:50) eta Erkuden San Martin 86.a (2:04:51).

Ipar eskia

Urbasara eskiatzera!



Ipar eskian aritzeko pista prestatzeko lanak, Urbasa-Andian. ARZELUS

Igandean ipar eski ibilbidea antolatu du Mank-ek Otxoportillon. Autobusa 8:30ean abiatuko da Altsasuko Suhiltzaileetatik

Elurra egin duenez, ipar eski ibilaldia antolatu du Sakanako Mankomunitateak igandean, Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunak taldearen laguntzarekin. Otxoportillo pista-tik barnako ibilbide ez lehiakorra izanen da, 3 ordu ingurukoa. Antolakuntzak aseguru egingo die partaideei eta ibilbidera txakurrik ezingo da eraman. Otxoportilloko pista-tik Mendarterarte ipar eskian aritzeko 5 km-ko pista prestatu dute Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunak-ekoek. Makinekin elurra prestatu eta seinaleztapena jarri dute, parke naturala denez, beharreko baimenekin eta eskakizun guztiak beteaz. Prestatutakoa errespetatzeko deia egin dute.

Izena ematea

Otsailaren 19ko 14:00ak arte, Mank-en (948 464 866, kirolak@sakanamank.com) edo egunean bertan autobusean. Prezioa: 8 euro.

Elurbusa

Ipar eski ibilbidearekin batera, Elurbusa zerbitzua mustu du Mank-ek igandean. Finean, Urbasara elurraz gozatzera igo nahi dutenei garraio zerbitzua eskaini nahi die Mank-ek, ipar eski ibilbidea antolatu dutenez, kontratatu duten autobusaren zerbitzua aprobetxatzeko. Elurbusa goizeko 8:30ean eta 10:30ean abiatuko da Altsasuko suhiltzaileetatik igandean, eta 12:30ean eta 14:00etan itzuliko da Altsasura, Urbasako kanpinetik abiatuta. Prezioari dagokionez, Arkangoa tabernan, Izaradendan eta Mank-en aurretik izena emanda Elurbusaren joan-etorriak 3 euro balioko du, eta izena ematen dutenek, gainera, oparienezko zozketan parte hartuko dute. Eta egunean bertan Elurbusara igotzen direnek 2 euro ordaindu beharko dituzte Urbasara igotzeko eta beste horrenbeste jaisteko.

Duatloia

Leire Maiza lehen emakume kadetea Barakaldon

XVII. Barakaldoko Duatloian 11. Emakumea izan zen etxarriarra, lehen kadetea

Beste kirol batzuen moduan, hasi da 2016ko duatloi denboraldia. Igandean XVII. Barakaldoko Duatloia jokatu zen (5 km korrikan, 19 km bizikletan eta 2 km korrikan). 95 duatletek osatu zuten proba, Hossain Kaabache (51:47) eta Ibone Sanchez (1:00:59) buru

zirela. Sakana Triatloi Taldeko Leire Maiza etxarriarra emakumezkoen sailkapenean 11.a sailkatu zen, probako lehen kadetea (1:14:35).

Sakana Triatloi Taldearen aurkezpena

Larunbatean, 10:00etan, Sakana Triatloi Taldeko 2016 denboraldi-ko aurkezpena egingen dute.

VII. Altsasuko Duatloirako izena ematea zabalik

Otsailaren 27an jokatu da, 10:30ean kategoria txikikoen probak eta 15:45ean helduena:

Sakanako Triatloi Taldeak antolatuta, otsailaren 27an jokatu da VII. Altsasuko Duatloia. Goizean, 10:30etik aurrera, Nafar Kirol Jolasen probak jokatu dira, kategoria ezberdinetan, eta arratsaldean, 15:45ean, helduen proba abiatuko da, aldi berean Nafarroako Duatloi Sprint Txapelketa izango dena.

Izena emateko

Ondoko bi web orrietan: www.navarratriathlon.com edo www.rockthesport.com, otsailaren 25era arte. (Kategoria txikikoek dohainik eta helduek 22 euro federatutakoek eta 26 euro federatu gabekoek).



Herri kirolak

Herri kirolen txanda



Katarain zazpigarrena eta Maiza hamabosgarrena Antzuolan

Beñat Katarainek eta Joxeja Maizak Antzuolan mustu zuten mendi lasterketen denboraldi berria. Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketan aritu ziren (13,8 km, 835 m desnibela +). 228 korrikalarik osatu zuten proba eta Iñigo Alzola arrasatearra izan zen txapeladuna (1:07:27). Beñat Katarain zazpigarrena sailkatu zen (1:4:11) eta Joxeja Maiza hamabosgarrena (1:15:39).



2015ean Altsasuk hartu zuen Nafarroako Herri Kirol Jokoen jardunaldi bat.

Igandean hasiko dira, Iruritan, Nafarroako Herri Kirol Jokoa. Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletatik prestatutako taldeak lehiatuko dira bertan

Igandean hasiko dira Nafarroako Herri Kirol Jokoa Iruritan pilotalekuan, 11:00etatik aurrera. Txapelketako lehen jardunaldia egonen da jokoan. Guztira 4 jardunaldi

di jokatu dira eta ondoren final handia, martxoaren 20an, Berriozarren. Nafarroako Herri Kirol Jokoa Sakanara ere etorriko dira, 3. jardunaldia, martxoaren 6an, Etxarri Aranatzan edo Arbizun jokatu baita. Ororbiak eta Larraintzarrek hartuko dituzte beste jardunaldiak.

Nafarroako Herri Kirol Jokoa Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuarekin batera antolatzen ditu, urtero, Nafarroako Herri Kirol Federazioak. Herri kirolak sustatzea eta herri kirolekin neska-mutikoen ongi pasatzea da helburua. Hiru kategorietan banatuta aritzen dira neska-mutikoen: kimuen mailan (11-12 urte), haurren mailan (13-14 urte) eta kadeteen mailan (15-16 urte). Taldeak mistoak izan ohi dira.

Kimu mailakoak, txikienak, proba konbinatutako txapelketan aritzen dira soilik –koaxkol biltzea, zakulasterketa, txingak eta korrika–. Haur eta kadete mailakoak, ordea, proba konbinatuetan aritzeaz gain –aurrean aipatutako trontza gehituta–, sokatira txapelketan aritzen dira ere.

Andra Mari eta Iñigo Aritza

Urtero gora egiten du parte-hartzeak. Aurten 9 klubetatik sortutako 30 talde ariko dira proba konbinatuetan –15 talde kimuetan, 8 haurren mailan eta 7 kadeteetan– eta 13 talde sokatira txapelketan –6 talde haurren mailan eta 7 kadete-

etan–. Bederatzi klub horietatik bi sakandarrak dira. Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolako Kirol Elkarteak, bata, eta Altsasuko Iñigo Aritza ikastolako Har Hitza Kirol Elkarteak, bestea. Aipatu bi ikastoletan herri kirolak sustatzeko lana egiten da aspalditik. Andra Mari ondoko taldeak sortu ditu: Andra Mari, Ondatz, Beriain, Leziza eta Utzubar. Har Hitza klubak, berriz, Iñigo Aritza taldeak. Berriozar, Basaburua, Araxes, Ultzama, Igantzi, Baztan Herri-Rugby Kirolak eta Artzanegi dira beste klubak.

Kimuen proba konbinatuetan 15 talde ariko dira, Andra Mari, Beriain eta Ondatz eta Iñigo Aritza A eta Iñigo Aritza B tartean. Haurren mailan proba konbinatuetan 8 talde lehiatuko dira, Andra Mari, Leziza, Utzubar eta Iñigo Aritza tartean, eta sokatiran 6 talde, Andra Mari, Leziza, Utzubar eta Iñigo Aritza tartean. Bukatze-ko, kadeteen proba konbinatuetan eta sokatiran zazpita talde lehiatuko dira, Andra Mari, Beriain eta Iñigo Aritza tartean. Ea orain arteko lan bikaina egiten jarraitzen duten.


Frantziako Okupazio garaian galdutako Dora Bruder-en bila

Larraitz Amadoz Lazkano

Monika Etxebarria arbizuarrrak Patrick Modiano Nobel saridunaren *Dora Bruder*

(Igela, 2015) liburua itzuli zuen, azaroan aurkeztu zutena. Paris protagonista bilakatzen da liburuan eta beste garai batera garatzen, Frantziaren okupazio

urteetara hain zuzen ere. Galdutako hamasei urteko neska baten historia kontatzen da Modianoren lan adierazgarrietako honetan.



bazterretik

Aritz Viñas

Lágrimas de Sangre

Kaixo irakurle, gaurkoan Lágrimas de Sangre taldeari buruz hitz egingo dut nire astekari honetako zatitxoan. Talde hau 2006an El Maresmen sortu zen, Bartzelonako probintzian. HipHop musika lantzen dute, baina reggae erritmoak eta gitarra elektrikoak erabiltzen dituzte haien letrak laguntzeko.

Sei disko grabatu dituzte talde bezala eta hauek aparte bakarrik lanak ere egin dituzte. Hauek interneten bidez zabaldu dituzte, honek ematen dituen aukerak erabiltzeagatik. Egun, talde berriek egiten duten bezala, errazagoa delako interneten bidez zerbait argitaratzea, bitartekariak ezabatu edo minimizatu egiten direlako. Haien azkeneko diskoa, "Si uno no se rinde", 2015ean argitaratu zuten. Letrek oso kutsu politikoa eta soziala daukate; Blancs Wutan eta Sir J-KLZ1 abesti ezberdinetan haien firma ere utzi dute.

Lau musikaririk osatzen dute taldea. Hasieran "Mora" eta "Neidos"-en ideia izan zen horrelako talde bat sortzea; proiektu horretara "Mikrobio" eta "Kaiz" batu egin ziren, eta gaur egun taldea osatzen dutenak "Neidos", "Mikrobio", "Still ill" eta "Acid Lemon" dira. HHGroups-ekin argitaratu dituzte haien sei diskoak eta bakarkako lanak ere, hauek denak dohainik eskuragarri daude produktore honen web-gunean.

"Si uno no se rinde" da disko formatuan ateratako haien lehenengo lana. Profesionalizatzeko bidean, hau pauso handi bat dela esan dezakegu. Sei disko atera ondoren argitaratuko dute haien lehenengo diskoa formatu honetan; zergatia, beste produktoreak eskaintzen zituzten kondizioak gustukoak ez zituztela da. Nahiz eta diskoa formatu fisikoan eskuragarri egon, diskoa ere dohainik dago eskuragarri haien web-gunean, euren esanetan: "La música es un bien cultural y como tal entendemos que debe ser algo de libre acceso para todo el mundo". Hori arrazoa.

Beraz, esan dezakegu, letra sozial eta politikoak egiteaz gain, nolabait ere esaten dutenarekin koherente izatzen saiatzen direla. Entzun beharreko talde bat da nire ustez; letra gogorak erritmo lasai eta txukunekin inguratzen dituzte. Bukatzeko, lehen esandakoa errepikatuko dut, haien web-orrian momenturaino argitaratutako disko guztiak dituzuela eskuragarri.

gertutik >>

Monika Etxebarria

Idazlea

Nola iritsi zen Dora Bruder liburua zure eskuetara?

Xabier Olarra, Igela argitaletxeko arduradunarekin dudan harremanagatik. Behin baino gehiagotan hitz egin genuen itzulpenen bat egiteko asmoz. Horrela, Modianori Nobel saria eman ziotenean itzulpena egiteko proposamena egin zidan. Nire gustuko lana iruditzen zitzaidan eta ezin izan nuen ezezkorik eman.

Jatorrizkoa zein hizkuntzatan dago?

Frantsesez. Nik jatorrizko hizkuntzarekin lan egiten dut, frantsesa, alegia. Aldamenean gaztelaniazko itzulpena izaten dut baita ere, eta batzuetan italierazkoa ere. Zalan-tzaren bat baldin badago beti lagungarriak suertatzen dira. Kasu honetan, gainera, anekdota gisa, jatorrizko liburua hartu eta gaztelaniazkoa eta italierazkoarekin konparatuz puska batzuk falta ziren itzulitakoetan. Hauritu egin nintzen eta zerbait gertatzen zela pentsatu nuen. Modianoren inguru-



ruko informazioa arakatzeko hasi nintzen, eta ohartu egin nintzen liburuaren bi bertsio zeudela. Antza denez, Modianok kazetaritza ikerketaren barruko datu batzuk gehitu nahi izan zituen eta, horregatik, erabaki zuen beste bertsio bat argitaratzea.

Nor da Dora Bruder?

Dora Bruder, Parisen bere gurasoekin bizi den 16 urteko neska bat da. Barnetegi batean sartu egin dute pixka bat gatazkatsua delako eta, halako batean, desagertu egiten da. Idazleak egunkariaren bidez desagertu berri jakiten du eta neskekin zer gertatu den ikertzen hasten da.

Testuinguruak garrantzi berezia dauka liburu honetan?

Bai, Frantziako okupazio garaia da, 1941. urtea. Naziak Parisen jaun eta jabe dira, giroa oso berezia da orduan. Modianok beti Paris erabiltzen du, hiriburua bera pertsonai bat bihurtzen du idazleak. Neska-aren desagertzea kontatu nahi du, baina benetan Modianori interesatzen zaiona Paris da. Bere liburu guztietan agertzen da Frantziako hiriburua, topografia berezi bat egiten du, obsesioa dauka. Liburu honen bidez Parisera bidaiatu dezakegu baina baita iraganera ere.

Nobel saridun baten obra itzul-tzeak badu ardura berezirik?

Ahaztu egiten zara horretaz, obran zentratu egiten zara. Nobel sariak oso bereziak dira, gehienetan, idazle ezezaguneri ematen zaielako, ibilbide frogatu xamarra dutenei, baina batzuetan oso literatura zale den jendearen pentsatzen ematen zaie saria. Gehiago zabalteko balio du? Batzuetan nik nire dudak ditut. Gustu bereziko jendearendako eginiko sariak direla uste dut, eta oso garrantzitsuak, noski. Zirkulu txiki batendako itzultzen ari naizen sentsazioa ematen dit.

Nola prestatu zenuen zure burua itzulpen hau egiteko?

Literatura itzultzen esperientzia pixka bat badaukat, ezer berezirik ez. Ona da liburuaren giroan sartzea, eta Modianoren kasuan are gehiago oso literatura atmosferikoa delako. Liburuak kontatzen duen istorioak agian ez du hainbeste garrantzirik, baina atmosferak bai. Egilearen liburu gehiago irakurtzen ditut, atmosfera horren barruan sartzea garrantzitsua da. Itzultzen ari naizen denboraldi horretan frantsesez gehiago irakurtzen saiatzen naiz. Baliabideei dagokionez, interneten asko aurki ditzakezu. Modianoren beste liburuak oso baliagarriak egin zaizkit ere.

Don Juanen memoria garratza

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean.

Don Juanen mitoa Jose Zorrilaren lumatik sortu zen. 1844an argitaratutako drama erlijioso, fantastiko eta erromantiko horretan Don Juanek hainbat emakume limurtu zituen eta duelutan hainbat gizon hil. Gazte garaian izan zen hori. Orain zahartuta, komentu batean itxita, bere azken egunetan laguntzen duen fraide gazte baten laguntza besterik ez du.

Baina heriotzak barre egiten dio, ez dio azken besarkada eman

nahi eta Don Juan Tenorio bere iraganari eta beldurrei aurre egin beharko die. Aldi berean, ordura arte ezezagun zitzaizkion sentimenduak ezagutuko ditu. Tenorioren besoetatik pasa ziren emakumeek haren oroitzapen garrantza gorde zuten. Baina are garrantzagoa da Don Juanena, ez damutu edo errua sentitzen duelako, baizik eta zahartuta, gaixo, komentuan itxia eta bakarrik, pasatuko eta bueltatuko ez diren egun hobeengatik tristura sentitzen duelako.

Abiapuntu hori du Compañía Pelmanec-en *Don Juan*, memo-



ria amarga de mi obrak. Don Juanen mitoaren errebisio bat da. Erabateko indibidualtasunaren ikur den pertsonaia, zahar eta babesgabe, bizitzaren plazeren berri ez duen fraide gazte baten eskutan. Giza neurriko txotxon-

giloa da Don Juan eta fraidea (Miquel Gallardo) du aldamenen. Txotxongiloa maneatzailaren eskutan, edo maneatzaila txotxongiloarenetan. Biengan barne borroka sortuko da, emozio eta sentipenen atea zabalduz.

Einnekin martxoko lehen asteburuaren zain



Bardoak, Nafarroako taldekako bertso ekimeneko, bigarren fasea ostiralean hasiko da. Sei taldek egin dute aurrera eta haien artean dago Etxarri Aranazko Einnekin. Berako Larungo antenak taldea izanena da etxarriarren aurkaria. Joane-neurketa martxoaren 4an, ostiralean, Etxarri Aranazko gazte-

txean jokatu da. Itzulikoa, hurrengo egunean, Berako Kataku ostatuan. Saioen egitura mantenduko bada ere, bertsolariek ariketa berriak egin beharko dituzte, talde lana handituz. Hiru talde onenek martxoaren 19an, arratsaldean, Etxarri Aranazko Euskalerrari frontoian jokatu den finalerako sailkatuko dira.

Etxarriko musikariak, behetik gora

Gaur, 22:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean bertsoien kontzertua eskainiko dute

Kultur etxeko atzeko aldean, behean, Elizkorta kalean elkartzen dira Etxarriko musika taldeak. Han dute entsegu lokala. Han sortzen dute; han jotzen dute musika. Gaur, ordea, eskailetan gora egin eta kultur etxea hartuko dute. 11 musikari etxarriar izan dira oholtza gainean: Lur Larraza, Endika Jara, Hanot Garde, Iñaki Irusta, Joxe Aldasoro, Juanpa Agirre, Luis Quintana, Ander Urkijo, Mikel Mundiñano, Maider Ansaeta Jokin Artieda.

Guztien artean bertso-saioa prestatu dute. Eta, besteak beste, honako bakarlari eta taldeen doinuak entzuteko aukera izanena da: Sting, Itoiz, Michael Jackson, Alice in Thains, Lorelei, Incubus,



Zaldibobo, Neil Young, Zarama, Bill Winters, Zea Mays, The Police, Survivor eta Stoner Train. Sakanako sortzaileei plaza eskain-

tzeko Agertokiye programa martxan jarri zuen Etxarri Aranazko Udalak, eta egitarau horren azken emanaldia da gaurkoa.

Falstaff altsasuarra Villafrancan

2016ko Nafarroako amateur antzerki erakustaldiaren barruan, Tarima Beltza antzerki taldea Villafrancarako bidea hartuko du bihar. Azken muntaia, *Falstaff no cree en la otra vida*, antzezlanak kultur etxean, 20:00etan emanen dute. Maskara-antzerki lan hori bakardadea gai duen tragikomedia bat da.



ASTE SANTUKO OPORREKIN AMETS EGITEN DUZU?

Zirkuituak autobusean	
Galizia	345€
Asturias.....	290€
Kantabria	415€
Konkistatzaileen ibilbidea ...	350€
Andaluzia.....	399€
Madril.....	345€
Porto	345€
Lisboa	415€
Loirako Harana	355€
Bretainia	435€

Bus + Hotela MO	
Cambrils / Salou	Peñíscola
290€	299€

Kontsultatu haurtzako deskontuak

www.viajeseroski.es
www.escaparateviajes.es

EROSKI / *bidaiak*
Ametxetan? Egizu legera!

Literatur solasaldia Ziordian

Ostegunean, 18:30ean, liburutegian

Carlos Ollo Razkin idazle iruindarra bere azken eleberria aurkeztera etorriko da Ziordiko liburutegira.

¿Quién con fuego? (Erein, 2015) liburuan Ollok hilketak bat argitzeko polizia-ikerketak batean buru-belarri murgiltzen gaitu. Nafarroako txoko batean aiton bakarti bat hilik agertuko da. Hilketaren arrazoiak bilatzen hasita sei hamarkada atzera egin beharko dute ikertzaileek, gerra ondorengora. Idazleak irakurlea Iruñetik, Olloaranera, mendialdera eta AEBra eramanen ditu galdera asko sortzen dituen hilketak argitzeko.

Mari egitasmoaren aurkezpena

Altsasuarrek eta sakandarrak ia bete egin zuten Iortia kultur guneko areto nagusia domekan. Yolanda Mazkianaren *Mari* film laburraren mustutzea ikusi nahi zuten. Pantailaren ezker aldean filmean Itziar Nazabalek margotutako koadroak egin ziren harrera guztiei.

Aitziber Etxaiz Soriak aurkezpenean azaldu zuenez, hiru bat

urte pasa dira Yolanda Mazkianaren Zelaia *Mariren* proiektua erregistratu zuenetik. Geroztik hura aurrera ateratzeko hainbat ate jo dituzte, baina ez da diru-laguntzarik etorri. "Ez zuten etsi eta aurrera egitea erabaki zuten". Hainbat arte-alorretan ibilitako altsasuarrekin lantaldea osatu zuten. Auzolanean, bakoitzak duen onena emanaz, sortu da *Mari* film laburra. "Herri-rik

egina eta herriari eskainia, bihotzetik bihotzetara, euskaratik euskarara. Hauxe baita gure Amalurrak utzi digun altxor preziatuena: herriaren nortasuna, Mari".

Arlo teknikoan lan egin zuen Joseba Salegik azaldu zuenez, "herriaren zinema-profesional asko daude. Gainera elkarrekin lan egindakoak gara Aitor, Gaizka eta hirurok eta elkar ulertzen dugu. Erra-

za izan da lan egitea". Guztia egun bakarrean filmatzeak Mari eman dako energia positiboari esker izan zela gaineratu zuen. "Bestela oso zaila da. Yolik oso argi zuen dena, oso ongi koreografiatuta eta oso erraza izan zen kamera sartzea".

Emanaldiaren ondoren sortzailearen eta publikoaren arteko solasaldia izan zen. Mazkianaren esker onarekin despeditu zen ekitaldia.



Film laburrean parte hartu dute

Kamara aurrean

Enrike Zelaia (akordeoilaria), Susana Aiestaran eta Haizea Grados (ama-alabak), Renata Arnedo (dantzagaraiakidea), Aitziber Etxaiz, Maixabel Lopez de Uralde, Mari-vi Martínez de Albeniz, Ana Bel Beramendi, Erkuden Barandiaran, Pili Maldonado (euskal dantzak), Erkuden Flores, Itziar Flores, Puri Alzelai, Edurne Amillano, Txaro Gorospe (abeslaria), Itziar Nazabal (margolaria) eta Raul, Naiara eta Maddi Urkijo (txalapartariak).

Talde teknikoa

Aitor Beramendi eta Gaizka Visier (kamerak), Aner Arregi (soinua), Xabi eta Jon Amaro (produktzio laguntzaileak), Ana Barandiaran (script), Joseba Salegi (edizioa eta zuzendari laguntzaileak) eta Yolanda Mazkian (zuzendaria).

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 58%	euria: 13%	euria: 5%	euria: 78%	euria: 93%	euria: 75%	euria: 43%
Min: -2 Max: 6	Min: -1 Max: 9	Min: 2 Max: 12	Min: 4 Max: 6	Min: 2 Max: 8	Min: 3 Max: 9	Min: 3 Max: 11

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	18	-2.5	976.8
Etxarri A.	17.1	-5.8	80.6
Altsasu	17.5	0.5	94.2
Aralar	9.5	-7.3	68.9
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
22	1	9	23

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

OTSAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera
 Artazako Kanpina: %10eko deskontua
 Lacturale: esneki lotea
 Artium museoa: 2 sarrera
 Gaztezulo: 3 hilabetez doan
 Magna Gurpea: 2 sarrera

2.,3. ETA 4. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera
 Artazako Kanpina: %10
 Lacturale: esneki lotea
 Artium museoa: 2 sarrera
 Gaztezulo: 3 hilabetez doan
 Magna Gurpea: 2 sarrera

>> 11 galdera

Ekhi Etxeberria eta Ander Zelaia

Bakaikuko Gazte Asanblada

Testua: Larraitx Amadoz Lazkano



LIBURUXKAK EZ dago mugarik!!

HARRERA GIDA:

Euskaltzaleen Topaguneak, zertarako eta nola

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

1.- Aurten hogei urte betetzen dira inauteriak berreskuratu zirenetik, ezta?

Inauteriak kasualitatez berreskuratu ziren Bakaikun. Inauteriez jakin nahian gazte talde bat Nafarroako inauterien inguruan idatzitako *Carnavales de Navarra* liburua irakurtzen arizela, Kamarroen pertsonaia aurkitu zuten Bakaikurizegokion atalean. Herriko jende helduari galdezka hasi ziren. Lehenengo urte hartan maskara batzuk egin zituzten, lehenengo inauterihoriek ospatzeko. Maskara horietaz gain, jantziak eta pertsonaia bera bakoitzak bere modura irudikatu zuen; etxean aurkitutako edozein arroparekin atera ziren kalera.

2.- Nortzuk egon ziren inauteriak berreskuratzen?

Bakaikuko Gazte Asanblada duela 18 urte sortuz eta ordutik berak du inauterien ardura, baina horren aurretik gazte talde bat izan zen ekimena aurrera ateratuena. Inauteriak berreskuratzeko nahi hori duela hogei urte hasi zen eta gaur egun ilusioz jarraitzen dugu.

3.- Nor dira Kamarroak?

Testu zaharrek eta herriko zaharrenek kontatu digutenaren arabera, bakoitzak bere etxetik ahal zuena hartzen zuen eta horrekin mozorratzen zen. Bakoitzak daukana erabiltzen du, baina zakuak eta larruak dira batez ere erabiltzen diren materialak. Aurpegia estalita eramaten dugu, batzuk zapi jartzen dute, beste batzuek maskara erabiltzen dute, eta gutxi

batzuek ere animaliren baten buruhezurra jartzen dute. Eta kamarroguztiekin makila alasardea eramaten dute.

4.- Nola ospatuko dituzue inauteriak larunbata honetan?

Goizean Kamarro txiki ospatuko dugu, eta umeak izanen dira protagonista. Eguerdialdera otordu txiki bat egingen dugu eta beranduego herri bazkarian bilduko gara. Arratsaldeko seiak aldera plazara aterako gara Kamarroak kalejirarekin hasteko. Etxez-etxe joaten gara kalejiran eta aurten modu berezian bukatu nahiko genuke. Plazan su bat egingen dugu eta auzate bat egiteko asmoa ere badugu. Ondoren, herriko goiko aldera joan gara etxez-etxe berriz ere.

5.- Aurten inauteriak atzeratu egin dituzue, ezta?

Normalean inauterigaraian ospatzen ditugu, baina aurten Santa Agedarekin batera zirenez, atzeratzea erabaki genuen.

6.- Sakanako azkeneko inauteriak izanen zarete?

Olaztirekin batera azkenekoak izango gara aurten, bai. Horrela tokatu da.

7.- Askok ospatzen dituzue inauteriak Bakaikun?

Lehenengo urteetan, gu txikiak ginenean, jende asko ateratzen zen. Azkeneko urte hauetan herriko gazteen jaia bilakatu dira inauteriak eta aurten horri buelta eman nahi izan diogu. Herriaren parte hartzea bultzatu nahi dugu.

8.- Modu berezian prestatu dituzue aurtengo inauteriak?

Bai, herriko jende desberdinarekin hitz egin dugu herri osoarendako prestatutako inauteriak izateko eta egitarau zabala egiten saiatu gara. Herriaren bizitasuna kalean ikusi nahi dugu inauteritan.

9.- Herriaren parte hartzea bultzatzeko asanbladak egin dituzue?

Bai. Bi asanblada ireki egin genituen. Ideia berriak nahi genituen, eta iritzi desberdinak entzun. Gurasoak ere gerturatu ziren, inauteriak berreskuratzen egon zen jendea ere, eta alde horretatik oso aberasgarria izan zen. Haurrekin ere hitz egin genuen, azken finean beraiek dira etorkizuneko belaunaldia.

10.- Landa Tresna berezirik ateratzen al duzue inauteritan?

Kamarro guztiak makila ala sardea ateratzen dute. Horretaz gain, goldea ere ateratzen dugu. Batzuetan ere gurdi bat ateratzen dugu.

11.- Erakusketa bat antolatu dituzue gaur, ezta?

Hori da, urteurrena dela eta, aurten inauterien inguruko erakusketa bat antolatu nahi izan dugu. Ostiral honetan bertan egingen dugu. Kamarroen historia laburbiltzen duen bideo bat egin dugu, eta horretaz aparte, argazki bilduma bat ere egin dugu. Hogei urte hauetako argazkiak prest dauzkagu eta aukera ona izanen da inauterien historia ezagutzeko.